

| ETXEBIZITZA



Aseguru-poliza Lagun Aro Etxebizitza

Baldintza Orokorrak

AURKIBIDEA

LEGE-INFORMAZIOA	06
ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK	07
ASEGURA DAITEZKEEN ONDASUNAK	08
ESKLUSIO OROKORRAK	11
BERMEEN LABURPEN-KOADROA	13
KALTE MATERIALEN BERMEAK	15
Suteak, tximistak eta leherketak	16
Arrisku osagarriak	18
Bandalismozko edo asmo txarreko egintzak	18
Eragile atmosferikoak	18
Keak egindako kalteak	18
Kanpotik etorritako gauza solidoen talkak eragindakoak	19
Soinu-uhinak	19
Aparatu elektrikoei eta horien osagarriei eragindako kalteak	19
Hotz-ganberetako salgaiak hondatzea	20
Lapurreta, espoliazioa eta ebasketa	22
Urak egindako kalteak	26
Balio estetikoa galtzea	30
Kristalak haustea	34
Bestelako galerak	36
Erabateko aurria	38
Lorategiak hondatzea	40
Istripuz gertatutako bestelako kalteak	42
Maizterraren bandalismozko ekintzak	44
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK	45
Familiaren erantzukizun zibila	46
Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzetik eratorritako erantzukizun zibila	52
Higiezinaren erantzukizun zibila	54
Fidantzak eta kostu judizialak	56
KALTEEN ERREKLAMAZIOA (Defentsa Juridikoko Asegurua)	57
- Oinarrizkoa	58
- Kontsumitzailearen defentsa juridikoa	62
- Defentsa juridiko zabaldua	64
- Errentatzailearen defentsa juridikoa	66
ASISTENTZIA PLUS	72
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN LAGUNTZA (Piezarik Gabe)	75
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN LAGUNTZA (Piezekin)	76
ETXEKO LAGUNTZA	78

Esku-trebea zerbitzua	84
EZOHIKO ARRISKUAK	86
Lege-arauen laburpena	87
Ezbeharra gertatutakoan jokatzeko prozedura	91
NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN	92
Betebeharrak	92
Ezbeharra deklaratzera	93
Kalteen balorazioa	93
Kalte-ordainaren muga	93
Erregela proportzionala (Infra-asegurua)	94
Gainasegurua	94
Edukiaren balorazioa	95
Edukiztailearen balorazioa	95
Peritazioa eta arbitrajea	96
Kapitalen konpentsazioa	97
Kalte-ordainen ordainketa	97
Subrogazioa	99
POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA	100
Aseguruaren oinarriak	100
Aseguruaren hasiera eta iraupena	100
Primen ordainketa	101
Banku bidezko helbideratzea	102
Arriskuaren aldaketak	102
Aseguratutako zenbatekoen errebalorizazioa	104
Ondasun aseguratuen transmisioa	104
Hirugarrenen eskubideak	105
Aseguruaren konkurrentzia	106
Jakinarazpenak	106
Preskripzioa eta jurisdikzioa	107
Telefono interesgarriak	108

* Aurkibide honetan adierazitako bermeetako bakoitzaren identifikazioa bat dator, aparteko dokumentu batean, Baldintza Partikularretan benetan kontratatutako bermeak erlazionatzen dituenarekin.

LEGE-INFORMAZIOA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen Aseguru etxeen eta berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-asegurua baldintza berezietakoak ere bai.

Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango polizako Baldintza Partikularretan zehazki eta idatziz onartuta ez badaude. Onarpen hori ez da beharrezkoa izango legeko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

Aseguratzaila SEGUROS LAGUN ARO, S.A. da, eta egoitza sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, Sozietateen BI-186 liburukia, 36 folioa, BI 2483 orria, 1. inskripzioarekin, eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko den aseguru-erakundearen Erregistroan C-572 gakoarekin.

Ekonomia eta Lehiakortasunerako Ministerioko Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio haren jardura kontrolatzea eta gainbegiratzea.

PRIBATASUN POLITIKA

Baldintza orokor honetan erantsita dagoen dokumentuan, aseguruak Seguros Lagun Aroren pribatasun politika kontsultatu ahal du.

NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Aseguru Hartzaileak **lehendabizi** Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo dezake, barneko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Seguros Lagun Aro
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua
Basurtuko Kaputxinoak 6 - 2.
48013 BILBO
www.seguroslagunaro.com
bezeroentzakoarreta@lagunaroaseguruak.eus

Bigarrenik, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones
Servicio de Reclamaciones
Paseo de la Castellana, 44
28046 Madrid
www.dgsfp.mineco.es

Erreklamazioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aroren bezeroaren arreta-zerbitzuari. Honek aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak; hori ere idazki bidez. Halaber, erreklamatzailak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

Edonola ere, beti izango du Epaitegi eta Justizia Auzitegi arruntetara jotzeko aukera.

ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK

Aseguru Etxea. Seguros LAGUN ARO, S.A., polizaren erakunde jaulkitzailea, Aseguratzailer gisa, eta prima kobratuta, kontratu honen objektu diren arriskuen estaldura bere gain hartzen duena, polizako baldintzen arabera.

Aseguru Hartzailea. Aseguru Etxearekin kontratu hau sinatzen duen pertsona, eta hortik sortzen diren betebeharrak, eta bereziki hitzartutako prima ordaintzearena, bere gain hartu beharko dituen, espresuki aseguratuari eta/edo onuradunari dagozkionak izan ezik.

Aseguratua. Arriskupean dagoen interesaren titularra, kasua denean, kontratutik sortutako eskubideak hartzen dituen pertsona. Aseguratuak bere gain hartu ahal izango ditu Aseguru Hartzailearen betebeharrak eta eginbeharrak.

Onuraduna. Poliza honen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea duen pertsona, Aseguru Hartzaileak edo, hala badagokio, Aseguratuak hala emanda.

Poliza edo aseguru-kontratua. Aseguru Etxearen eta Aseguru Hartzailearen artean hitzartutako baldintzak jasotzen dituen dokumentua, honako hauek osatutakoa: Baldintza Orokorrak (aseguruaren oinarrizko alderdiak eta alderdi orokorrak jasotzen dituztenak), Baldintza Partikularrak (Aseguru Hartzaile bakoitzarentzat Baldintza Orokorrak osatu edo aldatzen dituzten alderdi espezifiko eta indibidualizatuak jasotzen dituztenak) eta, hala dagokionean, baita Baldintza Bereziak eta Osagarri edo Eranskinak ere (Baldintza Orokorren ondorengo moldaerak xedatzen dituztenak).

Prima. Aseguruaren kontraprestazio gisa Aseguru Etxeari ordaintzen zaion zenbatekoa. Primaren zenbatekoa ordainagirian adierazten da, Aseguru Hartzaileari jasanaraz dakizkiokeen zergak, tributua eta errekaruak barne.

Zenbateko aseguratua. Ezbehar bakoitzeko eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten duen eta polizako Baldintza Partikularretan ezartzen den diru-kopurua.

Ezbeharra. Polizak estaltzen dituen ondorio ekonomiko kaltegarriak sortzen dituen istripuzko gertaera. Ezbehar bakartzat hartuko dira arrazoi bera edo berdina dela-eta sortutako kalte batengatik edo gehiagogatik egindako erreklamazioak. Kasu honetan, kalteetako lehenengoa azaldu zen unea hartuko da ezbeharren gertaera-data gisa.

Hirugarren bat. Aseguratuaz edo Aseguru Hartzaileaz bestelako edozein pertsona fisiko edo juridiko; hala ere, kontratu honen ondorioetarako, ez dira hirugarrentzat jotzen Hartzailearekin bizi diren pertsonak, eta ezta berorren edo Aseguratuaren familiartekoak ere, hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunekoak badira. Ez dira hirugarrentzat joko, ezta, etxeko langileak eta, egitez edo zuzenbidez, lehen aipatutakoen ardurapean dauden pertsonak ere, barrundegi horren eremuan jarduten duten bitartean.

ASEGURA DAITEZKEEN ONDASUNAK

Etxebizitza-polizaren barruan aseguratuenak izan daitezkeen ondasunak hauek dira:

EDUKITZAILEA

Bere baitan hartzen ditu:



→ **Etxebizitza:** Etxebizitza jotzen da honako hauen multzoa: zimenduak, forjaketak, habeak eta pilareak; paretak, sabaiak eta zoruak; estalkiak eta fatxadak; atek eta leihoak. Instalazio finko hauek: ura, gasa, gas-galdarak, argindarra, berokuntza, aire girotua edo ur-arazketa.

Etxebizitza joko dira honako eraikin osagarri hauek: armairu landatuak, irrati, telebista eta telekomunikazioetako antenak, tximiniak eta kristalezko itxiturak.

→ **Izaera pribatibokoak eta aseguratuarentzako sarbide eskusibokoak diren gelak, Baldintza Partikularretan espresuki xehatuak** eta polizan azaldutako finka berean kokatuak, esate baterako, garajeak, trastelekuak, txokoak edo upeltegiak eta aisialdirako eta kiroletarako guneak (igerilekuak, tenis-kantxak..).

→ **Eguzki-plakak**, betiere Baldintza Partikularretan espresuki xehatuta geratzen badira.

Eguzki-plakatzat joko dira **etxebizitarako erabilera eskusibo eta partikularra dutenak, eta salbuetsita geratuko dira sortzen duten energia merkaturatzen dutenak.**

Eguzki-plakak erkidegoan instalatzen badira, automatikoki sartuko dira aseguratuak edukitzean Aseguratuari dagokion parte proportzionalan.

→ Itxiturak edo lurrak mugatzekoak diren **hesiak edo hormak**, aseguratuaren eraikinaren mendekoak edo independenteak.

→ Aseguratutako etxebizitza dagoen eraikineko elementuetatik eta leku komunitatik Aseguratuari dagokion parte proportzionala.

Leku pribatuak zein publikoak izendatzeko, Jabetza Horizontalaren Legean aurreikusitakoa hartuko da aintzat.

KONTRATATUTAKO KAPITAL ASEGURATUA, ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINAREN MUGA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOA.

Ez da edukitzeaz joko:



→ Sukaldeko altzariak eta etxetresna elektrikoak.

→ Eraikinaren oinarria den lurzorua.

→ Zuhaitzak, landareak eta soropila.

EDUKIA

Bere baitan hartzen ditu:



→ **Ondasun higigarriak:** Altzariak, tresnak, janari-edariak eta hornidurak, etxetresna elektrikoak eta aseguruaren edo berarekin bizi diren edo bere mendeko diren pertsonen jabetzakoak diren (etxeko langileen jabetzakoak barne) eta kontratu honetako Baldintza Partikularretan izendatutako etxebizitzan dauden erabilera pertsonaleko gainerako elementuak.

→ **Trasteleku / Garaje pribatuko edukia:** Trastelekuan edo garaje pribatuan utzitako gauza, janari, arropa eta ondasun higigarriak oro har, betiere espresuki xehatzen badira Baldintza Partikularretan.

Polizan espresuki aurkakoa hitzartu ezean, **ez dira trasteleku edo garaje pribatuko edukizat joko:**

- Bitxiak, alajak eta objektu artistikoak edo historikoak.
- Linea marroi edo griseko etxetresna elektrikoak (telebistak, DVDak, irudi- eta soinu-ekipamenduak, kontsolak eta ekipamendu informatikoak).
- 1.500 euro baino gehiagoko balio unitarioko ondasunak.

→ **Bitxiak eta alajak:** Halakotzat joko dira:

- Urre, zilar edo platinozko gauzak, perla edo harribitxiz hornituak edo hornitu gabeak, norberaren apaingarri edo dekorazio modura erabiltzekoak.
- Lehen aipatutako materialez bestelakoekin eginak izan arren, helburu bera eta 1.500 eurotik gorako balio unitarioa duten gauzak edo gauza-multzoak.

Adibidea

- 1.500 eurotik gorako balioa duen altzairuzko erlojua.
- 1.500 eurotik gorako balioa duen bolizko irudia.
- Urre, zilar edo platinozko txanponak.
- Denera 1.500 eurotik gorako balioa duten Swarovski iruditxoen bilduma.

→ **Gauza artistiko edo historikoak:** Antzinasuna, egilea edo bestelako ezaugarri bat dela-eta merkatu espezializatuak berretsitako balio espezifiko bat duten ondasunak: artelanak, bildumak, zaharkinak, larruak, etab.

3.000 eurotik gorako balio unitarioa duten bitxi, alaja eta gauza artistikoak edo historikoak gauzaren jatorriari dagokion merkatu espezializatuko faktura, balorazio edo egiaztatgiri bidez frogatu beharko dira.

→ **Eduki profesionala**, betiere Baldintza Partikularretan espresuki xehatuta geratzen bada. Eduki hori bat etorriko da etxebizitza-motan adierazitako jardueraren azalpenarekin.

KONTRATATUTAKO KAPITAL ASEGRATUA, ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINAREN MUGA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOA IZANGO DA.

Ez da edukitzat joko:



Baldintza Partikularretan espresuki hitzartuta egon ezean, ez dira Edukitzat joko:

- Merkataritzako efektuak, loteriako billeteak, garraio-txartelak edo antzekoak, posta-zigiluak, tinbreak, efektu tinbredunak, balore higigarriak, tituluak, eskriturak eta, oro har, bestelako dokumentuak.
- Edukirako aseguratutako guztizko zenbatekoaren % 10 baino handiagoa den balio unitarioa edo multzo-balioa duen bilduma, edozein motatakoa.
- Bitxi edo alajetakoak ez diren perlak, harribitxiak eta metal preziatuak.
- Eskudirua, taloiak eta banku-txekeak.
- Edonolako ibilgailu motordunak eta horietan utzitako gauzak.
- Tresneria, makineria edo gauza profesionalak.
- Animaliak, azienda, lanabesak, uzta, bazka eta oro har nekazaritzako ustiategi profesional batera zuzendutako ondasunak.

ESKLUSIO OROKORRAK



Oro har eta berme guztien kasuan, Aseguru Etxeak ez ditu estaltzen ondorengo arrazoiak tarteko sortu edo eragindako kalteak eta galerak:

- Aseguratuaren fede gaiztoa, dolua edo erru larria.
- Gerra, inbasioa, etsaigoak (gerra-deklarazioarekin edo gabe), errebolta, altxamendua, kolpe militarra, botere-usurpazioa edo terrorismoa.
- Kutsu politikoa edo soziala duten gertaerak, matxinadak eta jende arteko iskanbilak eta kalapitak, bake-garaiko neurri edo indar militarrek.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearra nahiz kutsadura erradioaktiboa.
- Lur-asentamenduak, lur-hondoratzeak, luiziak, lur-jausiak edo lur-biguntzeak.
- Eraikuntzako akatsak edo bizioak.
- Poliza kontratatu aurreko kalteak.
- Eraikinaren egiturari, teilatuari edo trenkadei eragiten dieten higiezinan egindako eraikuntzako, berreraikuntza, eraberritze, konpontze edo eraldatzeko lanak.
- Etxebizitza eta bere instalazioak kontserbazio-egoera normalean egoteko beharrezkoak diren konponketak ez egitea.
- Egitatezko nahiz zuzenbidezko edozein gobernuren, tokiko edozein agintaritzaren edo agintaritza publiko baten aginduz egindako konfiskazioa, nazionalizazioa edo errequisa.
- Uholdeak, euri-jasak, sagailoak, erupzio bolkanikoak, urakanak, mugimendu sismikoak, lur-hondoratzeak, luiziak, ohiz kanpoko bestelako fenomeno sismiko nahiz meteorologikoak, eta, oro har, edozein kausa ohiz kanpoko edo katastrofiko. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen dituen gertaera edo fenomenoak, edo Erakunde horrek Aseguratuaren eskubidearen eraginkortasuna onartzen ez duenean, gertatzen den datan indarrean dauden erregelamenduan eta xedapen osagarrietan xedatutako arauetako baten bat ez duelako betetzen, ezta sortutako kalteak Estatuko gobernua "Katastrofe edo Hondamen Nazional" gisa sailkatzen dituen ere.
- Sortutako kalteen eta frankiziak edo detrakzioak, erregela proportzionalak edo beste mugapen batzuk aplikatzeagatik Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordaindutako diru-kopuruen arteko aldeak.
- Baimenik edo bizigarritasun-zedularik gabeko etxebizitzak (Baldintza Partikularretan espresuki kontrakorik hitzartu ezean).

ASEGURUAREN KONTZEPTUAK:

Ohiko etxebizitza: 30 egun baino gehiagoko denboraldi batean okupatu gabe egoten ez den etxebizitza.

Urte-sasoiko etxebizitza: 30 egun baino gehiagoko denboraldi batean okupatu gabe egoten den etxebizitza.

Alarma: Segurtasun-enpresa baten Zentral hartzailera konektatutako alarma.

Egitura nagusia: Higiezinaren eraikuntza nagusia eratzen duten sostenguko zutabe eta pilareen multzoa.

Bigarren mailako egitura: Solairuarte eta teilatuetako sostenguko habe edo habexken multzoa.

Egitura erregarrria: Egurrezko egitura edo hormigoiaz bestelakoak eta sukoiak diren materialezkoa.

Hirigunea: Isolatu gabeko etxebizitza, gutxienez 12 etxebizitzaz osatutako eta ur, estolderia, telefono eta argiteria zerbitzuak dituen biztanlegunean kokatua. Fatxada arteko distantziari dagokionez, gehienez 100 metroko distantzia izango da fatxada hurbileneraino.

Kutxa gotorra: Gutxienez 100 kilo pisatzen dituena edo paretan sartuta dagoena. Bi kasuetan, kutxa gotorrek baldintza hauek bete behar ditu:

1.- Ixteko elementu gisa, kutxa blokeatzeko ixte-kisketak mugitzen dituzten sarraila eta konbinazioa izango ditu, edo bi sarraila edo bi konbinazio.

2.- Ateak, baita paretak guztiek ere, oso-osorik, altzairu tenplatuz eta hormigoizko armatuz edo dauzkan ezaugarriengatik zuloei eta suari aurreko materialek adina aurre egiten dien konposizio batez eginda egon behar dute.

BERMEEN KOADROA

Baldintza Partikularretan kontratatutakoaren arabera:

BERMEAK	Zenbateko aseguratua EDUKITZAILEA	Zenbateko aseguratua EDUKIA
Suteak, tximistak eta leherketak	% 100	% 100
Bandalismozko edo asmo txarreko egintzak	% 100	% 100
Eragile atmosferikoak	% 100	% 100
Keak eragindako kalteak	% 100	% 100
Gauza solidoen talka	% 100	% 100
Soinu-uhinak	% 100	% 100
Aparatu elektrikoei eta horien osagarriei eragindako kalteak	% 100	% 100
Hotz-ganberetako salgaiak hondatzea		Kap. aseguratua
Ondasun higigarrien lapurreta eta espoliazioa		% 100
Etxebizitzan ebastea		% 5
Lapurreta eta espoliazioagatiko kalteak	% 100	% 100
Objektu artistikoen, historikoen eta ile-larruen lapurreta eta espoliazioa (gehienez ere 3000 euro deklaraturako objektuko)		% 25
Bitxi eta alajen lapurreta eta espoliazioa (gehienez ere 3000 euro deklaraturako objektuko)		Kap. aseguratua
Eskudiruaren eta txekeen lapurreta eta espoliazioa		Kap. aseguratua
Etxetik kanpoko atrakoa		Kap. aseguratua
Giltzak lapurtu edo galtzeagatik sarraileak aldatzea	Kap. aseguratua	
Kreditu-txartelen maulazko erabilera		Kap. aseguratua
Telefono mugikorraren maulazko erabilera		Kap. aseguratua
Norberaren instalazioetatik edo hirugarren batzuenetatik etorritako urak egindako kalteak, eta lokalizatzeko eta konpontzeko gastuak	% 100	% 100
EDUKITZAILEAK balio estetikoa galtzea	Kap. aseguratua	
EDUKIAK balio estetikoa galtzea		Kap. aseguratua

BERMEAK	Zenbateko aseguratua EDUKITZAILEA	Zenbateko aseguratua EDUKIA
Kristalak, marmolak, granitoak, metakrilatoak, plastikoak, loza sanitarioa eta plaka bitrozeramikoak istripuz puskatzea	Kap. aseguratua	
Hondakinak kentzeko gastuak	% 100	% 100
Suhiltzaileen udal-tasa	% 100	% 100
Hartutako neurriek egindako kalteak	% 100	% 100
Ondasun higigarriak lekuz aldatzea eta etxebizitza alokatzea (urtebete)	% 15	% 100
Alokairuak galtzea (urtebete)	% 15	
Utzarazpen urgentea		Kap. aseguratua
Tituluen eta baloreen bikoiztuak lortzea		% 100
Dokumentu pertsonalak berriro lortzea		Kap. aseguratua
Aldi baterako desplazatutako ondasunei eragindako kalteak		% 10
Erabateko aurria	Kap. aseguratua	
Lorategiak hondatzea	Kap. aseguratua	
Istripuz gertatutako bestelako kalteak	% 100	% 100
Familiaren erantzukizun zibila	Kap. aseguratua	
Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzetik eratorritako erantzukizun zibila	Kap. aseguratua	
Higiezinaren erantzukizun zibila	Kap. aseguratua	
Fidantzak eta kostu judizialak		Barne
Kalteen erreklamazioa (defentsa juridikoko aseguru)	Kap. aseguratua	
- Oinarrizkoa	Kap. aseguratua	
- Kontsumitzailearen defentsa juridikoa	Kap. aseguratua	
- Defentsa juridiko zabaldua	Kap. aseguratua	
- Errentatzailearen defentsa juridikoa	Kap. aseguratua	
24 orduko etxeko laguntza		Barne
Etxetresna elektrikoen laguntza (piezekin)	Kap. Aseguratua	
Etxetresna elektrikoen laguntza (piezarik gabe)	Kap. Aseguratua	
Asistentzia PLUS	Kap. Aseguratua	
Esku-trebea zerbitzua	Kap. aseguratua	
Telefono bidezko orientazio juridikoa		Barne
Ezohiko arriskuak		Barne

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, aseguratutako etxebizitzaren berme kontratatuak estalitzat hartuko dira, horietan adierazi den aseguratutako zenbatekoaren mugekin.

KONTRATATUTAKO KAPITAL ASEGURATUA, ETA HORTAZ, KALTE-ORDAINAREN MUGA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN AGERTZEN DENA IZANGO DA

Adibidea

Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Suteak, tximistak eta leherketak

Estaltzen dira



→ **Suteak.** Ondasun aseguratuek suaren ekintza zuzenaren ondorioz izandako kalte materialak eta galera ekonomikoak, baita sutearen ondorio saihetsezinen ondorioz sortutakoak ere, sua ustekabean, arrotzen gaizkinahiarengatik, aseguratua zabarkeriagatik edo bere erantzukizun zibilaren mende dauden pertsonen zabarkeriagatik sortua bada.

→ **Tximistak.** Aseguratutako ondasunek tximista zuzenean ondasunen gainera erortzeagatik, nahiz eta istripu horrek sutarik ekarri ez, jasaten dituzten kalteak eta galerak.

→ **Leherketak.** Gas baten presioak edo depresioak eragindako ekintza bat-bateko eta bortitzak sortutako kalte material zuzenak ondasun aseguratuetan, nahiz eta istripu horrek sutarik ekarri ez.

Adibidea

- Zartaginak su hartu, eta, ondorioz, sukaldeko altzariek eta etxetresna elektrikoek ere su hartzea.
- Butano-bonbona lehertzeagatik paretak eta ateak haustea.
- Gaizki itzalitako zigarrokin baten erruz, egongelako altzariek su hartzea.

Ez dira estaltzen



→ Berokuntza edo argiteriako aparatuekin kontaktuan egoteagatik beroaren eragin hutsez sortutakoak, erretzailearen istripuak eta aseguratutako gauzak sutara banaka erortzean.

Adibidea

- Axolagabekeriarengatik lisaburdinak arropa zulatzea.
- Gaizki itzalitako zigarrokinak moketa zulatzea.
- Piztuta dagoen manta elektrikoak izarak zulatzea.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Arrisku osagarriak

Se cubren

→ **Bandalismozko edo asmo txarreko egintzak.** Kaltea sortzeko helburu bakarrarekin eta lapurreta edo lapurreta-ahaleginaz bestelakoak izanik banaka edo taldean egindako BANDALISMOZKO EDO ASMO TXARREKO EGINTZEN ondorioz sortutako kalte materialak, baldin eta aseguratutak, soldatako langileek, aseguru-hartzaileak, horien edo beren senideen mendeko pertsonak eta aseguratuen jabetzakoa den etxebizitzaren errentariek egindakoak ez badira.

Babestuen geratzen dira, orobat, uztailearen 15eko 9/1983 lege organikoan xedatutako gertaerengatik aseguratutako ondasunetan eragindako zuzeneko kalte materialak, eta baita legezko greba bitartean gertatzen direnak ere, nola eta jarduketa horiek ez duten matxinadaren edo jende-iskanbilaren izaera hartzen.

Estaldura eraginkorra izango bada, agintaritzaren eskudunaren aurrean gertaerari dagokion salaketa egin beharko da, eta, kasua denean, jasandako kalteak frogatzen dituzten egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Ezbeharrak gertatuz gero, Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean eman beharreko kalte-ordaina baldintza partikularretan adierazitakoa izango da.

→ **Eragile atmosferikoak.** Ondasun aseguratuei kausa hauengatik eragindako zuzeneko kalte materialak:

Euria: Erregistratutako prezipitazioak metro karratu eta orduko 40 litrotik gorakoak badira, edo metro karratuko 60 litrotik gorakoak badira 12 orduz segidan.

Haizea: Orduko 90 kilometrotik gorako abiadurak eta orduko 120 kilometrotik beherakoak erregistratzen badira.

Harriabarra eta elurra: daukaten intentsitatea edozein izanda ere.

Aurreko gutxieneko balioak ezbeharrak gertatu den tokitik gertuen dagoen behatoki meteorologikoaren neurketen bidez frogatuko dira.

Datu objektiboak lortzerik ez badago edo, lortu arren, adierazitakoak baino txikiagoak badira, kalteen estaldurarako nahiko intentsitate egon dela ulertuko dugu esku hartzen duen perituen iritziz arrisku aseguratuen pareko beste higiezin batzuetan ere kalte orokorrak daudela egiaztatuta bada, betiere 5 kilometroko eremuan.

Polizan aseguratutako edukitzailan haizeak eragindako kaltetzat hartuko dira zuhaitzak, kaleko argiak edo Aseguratuen jabetzakoa diren beste instalazio batzuk erortzearen ondorioz sortutakoak.

→ **Keak sortutako kalteak.** Keak sortutako kalte material zuzenak bat-bateko eta ezohiko isuri edo ihesen ondorioz, errekontzarako, berokuntzarako edo egosteko edozein sistematan edo antzeko sistema batean gertatutakoak, aseguratutako instalazioen parte badira eta funtzionamendu ona izateko beharrezkoak diren eta eska daitezkeen elementuak badituzte.

Halaber, bermatuta geratzen dira jatorria hirugarrenen instalazioetan duten keagatiko kalteak, aurreko paragrafoan adierazitako kausek sortutakoak badira edo jatorria hirugarrenen jabetzakoa diren ondasunetan badute, sute baten ondorioz.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Arrisku osagarriak

Estaltzen dira

→ **Kanpotik etorritako gauza solidoen talkak eragindakoak.** Kanpotik etorritako objektu solidoak ondasun aseguratuetan erori, talka egin edo horiek jo ondoren ondasun aseguratuetan sortutako kalte materialak.

→ **Soinu-uhinak.** Espazio-ontziek edo aireontziek sortutako soinu-uhinen ondorioz sortutako kalte materialak.

→ **Aseguratutako ondasun higiezinakoak** diren instalazio elektriko, linea eta gailu finkoei egindako **kalte elektrikoak**.

Kalte elektrikotzat jotzen da:

→ **EDUKITZAILEARENA:** Edukitzailea aseguratzen bada, ezohiko korrante elektrikoaren edo zirkuitulaburren ondorioz **instalazio elektrikoak jasandako kalteak** estaltzen dira, baldin eta elektrizitatearen eraginez edo tximista erortzearen ondorioz gertatzen badira.

→ **EDUKIAK IZANDAKO KALTE ELEKTRIKOAK:** Edukia aseguratzen bada, aseguratutako etxebizitzan dauden gailu elektrikoak eta horien akzesorioak egindako kalteak estaltzen dira, baldin eta kalte horiek **aseguratutako arriskutik kanpoko alterazio elektrikoek, etxebizitzaren instalazioan edo beste gailu batzuetan gertatutako zirkuitulaburrek edo tximistak** eragindakoak badira.

Linea marroiko ekipamenduek (irudi- eta soinu-ekipamenduek, telebistek, DVDek...), linea griseko ekipamenduek (ekipamendu informatikoen) eta horien osagarriek jasaten dituzten kalteak berritako balioaren arabera baloratutako dira, modelo bera oinarri hartuta, ezbeharrak hondatutako objektuaren modelo merkatuan badago (markak deskatalogatu gabe), edo horren ezean, ezaugarri eta funtzio berberak dituen bat.

Halakorik ez badago, gailuaren antzintasunari lotutako balio-galera kenduko zaio kalte-ordainari: kaltetutako ondasunak erositako urtean zuen balioaren % 10 urteko (salbamenduko balioa deskontatuz), % 70 gehienez ere.

Konponketaren balioak zenbatekoak gainditzen dituen kasuetan, ondasunaren zenbateko osoari dagokion kalte-ordaina emango da, aurreko kontsiderazioekin bat etorritik.

Estaldura horren eraginkortasuna, hain zuzen, Aseguru Etxeak izendatutako teknikariek egiten duten kalteen egiaztapenaren mende geratuko da.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Arrisku osagarriak

Estaltzen dira



→ **Hotz-ganberetako salgaiak hondatzea.** Aseguru Etxeak eman egingo du hotz-ganberetako produktuak kontsumorako BALIOGABETZEAREN kalte-ordaina honakoen ondorio badira:

Hotz-ganbera geratzea polizak estalitako edozein bermek babesten duen ezbehar baten ondorioz.

Berme hori barneko beste edozein matxurara (mekanikoa zein elektrikoa) zabalduko da, betiere **hotz-ganberak 10 urte baino gutxiago baditu.**

Argindarraren horniduran ustekabeko etenaldiak gertatzea, etenaldi horiek 4 ordutik gorakoak badira.

Adibidea

- Lagun-talde bat iskanbilan ibili da gauean, eta goizean zure atezain automatikoa hondatua dago.
- Orduko 90 kilometrotik gorako abiadurako haizeak zure pertsianak haustea.
- Ondoko eraikin batean sutea gertatu da, eta kea zure etxera sartu da.
- Auto batek zure hesia jo eta puskatzea.
- Ekaitz elektrikoaren ondorioz gaintentsio bat sortu, eta zure telebista hondatzen du.
- Enpresa hornitzaileak izan duen matxuraren ondorioz, 4 orduz elektrizitaterik gabe gelditu zara eta hozkailuko janariak hondatu egin dira.

Ez dira estaltzen



→ Kalte elektrikoaren estalduratik eratorrita, bonbillei (halogenoak barne), lanparei, hodi fluoreszentei edo antzekoei egindako kalteak.

→ Kalte elektrikoaren estalduratik eratorrita, gailuaren fabrikatzailea edo hornitzailea legez edo kontratuaren ondorioz erantzule duten kalte eta/edo galerak.



Ez dira estaltzen

- Kalte elektrikoek estalduratik eratorrita, erabilera, hausturagatik edo kaltetutako gailuaren funtzionamendugatik eragindako kalteak.
- Kalte elektrikoek estalduratik eratorrita, mantentze-operazioen edo maneiaketa- edo instalazio-akatsen ondorioz sortutako kalteak.
- Kalte elektrikoek estalduratik eratorrita, erabilera edo higadura normalaren, pixkanakako balio-galeraren, berezko bizioaren edo behar bezala ez kontserbatzeagatik sortutako kalteak.
- 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten gailuen kalteak.
- Herdoilak eragindako kalteak, eta itxi gabe geratu diren edo ixteko sistema akastuna duten ate, leiho edo bestelako irekiguneetatik sartutako elurrak, hondarrak, urak eta hautsak eragindakoak.
- Izozteek, hotzak, izotzak, olatuek edo mareek eragindako kalteak, fenomeno horiek haizeak eragindakoak izan arren.
- Aire librean edo eraikin irekietan utzitako edukiko ondasunei egindako kalteak.
- Kearen ekintza geldo eta jarraituaren ondorioz sortutakoak.
- Aseguratuaren jabetzakoak diren ibilgailuei edo objektuei eragindako kalteak, baldin eta aseguratuaren edo bere mendeko pertsonen esku zein kontrolpean badaude.
- Makineriaren berezko higaduraren ondoriozko kalteak.
- Hondatutako janariak beste ondasunei sor diezazkioketen kalteak.

Adibidea

- Egongelako leihoa ixtea ahaztu zaizu, eta euriak alfonbrak eta besaulkiak hondatu ditu.
- Sukaldeko sabaiak belztuta daude kozinatzean sortutako bero eta keengatik.
- Zure garaje indibidualean sartzean, autoarekin garajeko atea hondatu duzu.
- Ordenagailua ez dabil barruko osagaietako batek huts egin duelako.
- Toldoa ixtea edo biltzea ahaztu zaizu alerta meteorologikoa dagoenean, eta haizeak hondatu egin dizu.
- Irekita dauden toldoetan gertatutako kalteak, etxebizitzan inor bizi ez bada 24 orduz baino gehiagoko epean.
- Gailuaren beraren barneko zirkuitulaburrek Edukiari eragindako kalte elektrikoek ez dute estaldurarik izango.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Lapurreta, espoliazioa eta ebasketa

Kontuan hartu:

Lapurreta eda Baldintza Partikularretan deskribatutako ondasunez -bere jabearen nahiaren kontra- maizterrak ez diren hirugarren batzuk jabetzea, horien edukitzaileak -gauzak nahiz barrutiak- indarrez behartuz.

Lapurretatzat joko dira aseguratutako etxebizitzan eskalatuz sartuta egiten diren osteak.

Espoliazioa edo atrakoa da Baldintza Partikularretan deskribatutako ondasunak -bere jabearen nahiaren kontra- maizterrak ez diren hirugarren batzuek legez kanpo kentzea, pertsonen kontrako larderia edo indarkeria erabiliz.

Ebasketa da Baldintza Partikularretan deskribatutako ondasunak -bere jabearen nahiaren kontra- maizterrak ez diren hirugarren batzuek legez kanpo kentzea, gauzak behartu gabe eta pertsonen kontra larderiarik edo indarkeriarik erabili gabe.

Ebasketaren kasuan, Aseguratzzaileak Aseguratuari eskatu ahal izango dio, kalte-ordaina eman aurretik, ebatsitako objektua beste objektu berdin batekin (edo, halako objekturik ez badago merkatuan, ahalik eta ezaugarri antzekoenak dituen beste objektu batekin) ordeztu duela egiaztatzen duen existentzia-froga edo faktura.

Estaltzen dira

→ Etxebizitza barruko **ondasun higigarrien lapurreta eta espoliazioa.**

→ Etxebizitza barruko **ondasun higigarriak ebastea.**

→ **Eskudiruaren eta txeekeen lapurreta eta espoliazioa,** Baldintza Partikularretan zehaztutako kopuru-mugarekin ezbehar bakoitzeko, baldin eta gertaera aseguratutako etxebizitzaren barnean gertatzen bada.

→ **Aseguratutako etxebizitzaren barnean dauden gauza artistiko eta historikoen eta ile-larruen lapurreta eta espoliazioa,** 3000 €-ko mugarekin gauza bakoitzeko, nola eta polizan ez diren espresuki zehaztu eta identifikatzen kopuru horretatik gorako balioko gauzak, eta baldintza partikularretan zehaztutako kapitalaren gehienezko mugarekin ezbehar bakoitzeko horien guztien multzoarentzat.

→ Aseguratutako etxebizitzaren barnean dauden **bitxien eta baliozko gauzen lapurreta eta espoliazioa,** 3000 €-ko mugarekin gauza bakoitzeko, nola eta polizan ez diren espresuki zehaztu eta identifikatzen kopuru horretatik gorako balioko gauzak, eta baldintza partikularretan zehaztutako kapitalaren gehieneko mugarekin ezbehar bakoitzeko horien guztien multzoarentzat.



KALTE MATERIALEN BERMEAK

Lapurreta, espoliazioa eta ebasketa

Estaltzen dira

→ Aseguratuak, bere familiartekoei eta bere ardurapean dauden eta berarekin bizi diren pertsonen **etxetik kanpora eramandako ondasunen espoliazioa**, behar bezala frogatutako indarkeriazko egintzen bidez egina izan bada.

Estaldura eraginkorra izango bada, agintaritza eskudunaren aurrean gertaerari dagokion salaketa egin beharko da, eta, kasua denean, jasandako kalteak frogatzen dituzten egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Ezbeharra gertatuz gero, Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean eman beharreko kalte-ordaina baldintza partikularretan adierazitakoa izango da.

→ Lapurtuak, espoliatuak, galduak edo **legez kanpo kopiatuak izan diren kreditu-, erosketa- edo banku-txartelak maulaz erabiltzea**, baldin eta erabilerari hori erakunde jaulkitzaileari gertaeraren berri eman aurreko edo ondorengo 48 orduen barnean gertatzen bada, aseguratuen kargurako kopuruaren mugarekin, eta gehienez ere baldintza partikularretan adierazitako mugarekin ezbehar bakoitzeko.

→ Edukiztaileari eta edukiari egindako zuzeneko **kalte materialak**, LAPURRETA, ESPOLIAZIO edo HORRELAKOAK EGITEKO SAIOEN ondorioz.

→ Etxebizitzan sartzeko giltzak etxe barruan edo kanpoan LAPURTU, ESPOLIATU, EBATSI edo GALTZEAREN ondorioz, aseguratutako etxebizitzako SARRAILA antzeko ezaugarriak dituen beste batez ERABAT EDO PARTZIALKI ORDEZTEKO **egin beharreko gastuak**, gehienez ere Baldintza Partikularretan adierazitako zenbatekoarekin edozein kasutan.

→ **Telefonia mugikorreko gailuen lapurreta edo ebasketako kasuan**, telefonoarekin maulaz egindako erabileratik (betiere gertaeraren berri izaten den unetik hasi eta 24 orduko epean) eratorritako gastu gehigarria ordainduko da.

→ Aseguratutako etxean aseguratutakoekin lan-kontratu bat indarrean duten **enplegatuen desleialtasuna**. Aurrez Poliziaren aurrean jarritako salaketaren agiria aurkeztuz gero, enplegatuek zure eskudirua eta bitxiak ostea edo horietaz bidegabeki jabetzea bermatzen da, betiere **ostearen aurretik sei hilabetez edo gehiagoz** lan egin badute aseguruarentzat.

Ezbehar bakoitzeko 100 euroko frankizia aplikatuko da.

Adibidea

- Etxera iristean, atea txikituta dago, eta telebista, arropa, dirua eta margolanen bat desagertu dira.
- Kaletik pasean zabiltzala, eraso egin, eta zorroa, erlojua eta jaka kentzen dizkizute.
- Tabernan zorroa kentzen dizute barruan kreditu-txartelak dituela, eta baja eman aurretik erabili egiten dituzte.

Ez dira estaltzen



- ETXEBIZITZATIK kanpora, eta/edo aire librean edo eraikin irekietan dauden ondasun aseguratutak, berme honetan kontuan hartutako kasuetan izan ezik, edota horien estaldura ez badago espresuki itundua.
- Aseguratuaren edo bere mendeko pertsonen edo haiekin bizi direnen zabarkeria larriarengatik sortutakoak.
- Ez dira aseguraturata egongo trasteleku edo garajeetan egiten diren bildumen, balio bereziko gauzen (historiko edo artistikoen), ile-larruen, bitxien, diruen eta kreditu-txartelen ebasketak.
- Etxebizitzan urteko garai jakin batzuetan bakarrik bizi bada jendea (urte-sasoiko etxebizitza), ez dira berme honetan sartzen -soilik hutsik dagoen denboraldian, aldi hori edozein dela ere- erraz garraiatzen diren eta bakoitzak EDUKIARENTZAT aseguraturutako kapitalaren 100eko 5 baino gehiagoko balioa duten gauzak.

Adibidea

- Etxebizitzatik irteteen, atea zabalik uzten duzu kanpoan denbora gutxi egongo zarelaikoa, eta itzultzean ondasunen bat desagertu zaizula ikusten duzu.
- Etxebizitzako ataripe irekian zegoen bizikleta desagertu zaizu.
- Etxean festa bat egin ondoren, dirua eta margolanen bat falta zaizula ikusten duzu.
- Tabernan zaudela, zorroa aulki baten gainean uzten duzu, eta ezezagun batek eraman egiten du.
- Zabalduta zenuen arropa jasotzean, zerbait falta zaizula ikusten duzu.
- Aparkatuta zegoen autotik betaurrekoak eta telefono mugikorra kentzen dizkizute.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Urak egindako kalteak

Estaltzen dira



Ur-isuriek egindako kalteak:

- Ondasun aseguratuek jatorria instalazioetan edo norberaren zein hirugarren batzuen eroanbideetan duten istripuzko ur-isurien edo buxaduren ondorioz jasaten dituzten zuzeneko kalte materialak.
- Aseguratutako ondasunek norberaren edo hirugarren batzuen txorrotak edo ixteko giltzak itxi gabe uzteagatik izandako zuzeneko kalte materialak eta aseguratutako ondasunek jasandako kalteak.

Gehiegizko kontsumoa:

- Urak egindako kalteen estaldura honetan lehen azaldutako kasuekin bat etorritik estalitako ezbehar batek sortutako normaletik gorako eta Baldintza Partikularretan markatutako muga arteko ur-kontsumoaren ordainketa (ur-txorrotak edo ixteko giltzak itxi gabe uzten diren kasuetan izan ezik).
- Urak egindako kalteen estaldura honetan lehen azaldutako kasuekin bat etorritik estalitako ezbehar batek edo hezetasuna kentzeko gailua jartzean sortutako normaletik gorako eta Baldintza Partikularretan markatutako muga arteko elektrizitate-kontsumoaren ordainketa (ur-txorrotak edo ixteko giltzak itxi gabe uzten diren kasuetan izan ezik).

Azken 6 hilabeteetako ur- edo elektrizitate-fakturak aurkeztu behar dituzte bezeroak. Ezbeharra izandako unearen aurreko batez besteko ordainketekiko gehiegizkoa den zenbatekoaren arabera emango da kalte-ordaina.

Iragazketek egindako kalteak:

- **Kanpoko iragazketak:** Ondasun aseguratuek teilatuetan, teilatu lauetan edo fatxadetan iragazitako euri-uraren ondorioz sortutako zuzeneko kalte materialak.

Kasu guztietan, estaldurak estalitako kaltea kalte hori sortu duen kausaren konponketaren mende geratzen dela hitzartzen da.

Kanpoko iragazketengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galdu egingo da ez bada konpontzen gastu horiek eragiten dituen matxura gehienez ere 1 urteko epean.

- **Barneko iragazketak:** ur-iragazketen ondoriozko kalteak estaltzen dira, baldin eta etxebizitzako bainuontzien, dutxen, konketen, harrasken, txorroten eta antzekoen tartean begi-bistakoa ez den zigilatze-akatsen bat badago. Bermearen estaldurarako nahitaezkoa izango da Aseguru Etxeak kalteen jatorria egiaztatzea lehenbizi.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Urak egindako kalteak

Estaltzen dira



Izozteek/urtzeek egindako kalteak:

→ Izotza urtzearen ondorioz aseguratutako ondasunek jasandakoak, eta **izotzagatik** uraren hodi, eroanbide eta deposituak **hausteagatik** jasandakoak.

Uholdeek egindako kalteak:

→ Aseguratutako ondasunek jasandako zuzeneko kalte materialak irtenbide naturalik gabeko aintzirek, kanalek, erretenek edo gizakiak gainazalean eraikitako beste ubide batzuek gainezka egin edo horiek desbideratzeagatik, baita estolderiek, kolektoreek eta lur azpiko beste ubide batzuek gainezka egin, hautsi edo matxuratzeagatik jasandakoak ere.

Urak egindako kalteen bermearen ondorioetarako:

→ Berokuntza-sistemak, ur beroaren sistemak edo suteak itzaltzeko sistemak elikatzen dituzten urak ez diren bestelako likidoak kontsideratuko dira.

Kaltetutako zatia lokalizatze eta konpontzeko gastuak:

→ Edukitzailea aseguratuta dagoenean eta ur-ihesak aseguratuta dauden ondasunetan zuzeneko kalteak eragin dituenean, Aseguru Etxeak ihesa eragin duen hodi kaltetua bilatzeko eta birjartzeko edo konpontzeko beharrezkoak diren igeltserotzako eta iturgintzako gastuen kopurua itzuliko du, baldin eta hodi horiek aseguratutako etxebizitzakoak badira, eta igerileku, urmael, putzu, putzu septiko edo arrisku-sareetakoak ez badira edo horietatik ez badatoz.

Topatzeko gastuak ezbeharrrik gertatu gabe:

→ Edukitzailea aseguratua dagoenean, Baldintza Partikularretan ezarritako mugaraino estaliko dira istripuzko ur-isuriak topatzeko eta konpontzeko beharrezkoak diren iturgintza- eta igeltserotza-gastuak, nahiz eta Urak eragindako kalteen bermeak estaltzen dituen kalteak gertatu ez

Buxadurak libratzea:

→ Edukitzailea aseguratua dagoenean, buxadurak libratzeko gastuak estaliko dira, nahiz eta urak kalterik sortu ez duen aseguratutako etxebizitzaren hoditeria pribatuetan gertatutako buxaduren ondorioz. Horien artean sartuko dira hondakin-urak, zikinak edo euri-urak husteko sareari dagozkion hodiak.

Ez dira estaltzen



→ Lurpeko ura edo ur geldia, edo itsasoko ura iragazteagatik, edo ibaiko urak gora edo gainez egiteagatik izandako kalteak.

→ Instalazioak, ikusteko moduan eta nabarmen hondatuta daudenean, kontserbazio-egoera normalean egoteko, edo hodi eta aparatuen higadura nabari eta ezaguna zuzentzeko beharrezkoak diren konponketak ez egiteagatik sortutako kalteak.

→ Berme hau dela-eta ezbehar bat estali ondoren Jabetza Horizontalaren Legean aurreikusitako egin beharreko konponketak ez egiteagatik beste ezbeharren bat sortzen bada, Aseguratua erru larrian erori dela kontsideratuko da eta, beraz, Aseguru Etxea, arriskua areagotzeari dagokionez Baldintza Orokor hauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, berme honetatik beretzat erartortzen diren betebeharretatik salbu geratuko da.

→ Hezetasunak eta kondentsazioak sortutako kalteak.

→ Teilatuak, teilatu lauak edo fatxadak konpontzeagatik gastuak, baita polizak estaltzen dituen urarengatik kalteak sortu badira ere.

Hodien barnean pixkanaka-pixkanaka zikina pausatzegatik sortutako buxadurek eragindako kalteak.

→ Txorrotak, ixteko giltzak, elementu edo aparatu sanitarioak eta horien osagarriak, galdarak, berogailuak, metagailuak, erradiadoreak, aire girotua eta, oro har, instalazio finkoei eta etxetresna elektrikoei lotutako edozein aparatu edo elementu konpondu edo doitzea.

→ Ixteko giltzen, txorroten edo berogailuen jario jarraituek eragindako kalteak.

→ Hodiak, hustubideak, kutxatilak eta buxatu edo trabatu den beste edozein ubide libratu, garbitu, konpondu edo aldatzeko gastuak ("Buxadurak libratzea" izeneko bermean lehendik estalitako kasuetan izan ezik, estaldurak ezarritako mugaraino).

→ Matxura bilatzeko egin beharreko igeltserotzako eta iturgintzako gastuak kaltea polizak estaltzen ez badu eta lan horiek egin dituen profesionala ez badu Seguros Lagun Arok bidali.

Ez dira estaltzen



- Jatorria Administrazio publikoei mantentzea dagokien plazetan, espaloietan edo beste elementuetan dagoen euri-ura iragazteagatik gertatutako iragazketak.
- Ura sartu delako edo kanpotik datozen iragazketek eragindako kalteak, lorategien nahiz jardineren edo bide publiko edo pribatuen ondorioz.
- Eraikuntzako akats edo bizioengatiko kalteak, hoditerien diametroaren gutxiegitasuna, edo haien inklinazio-graduaren gutxiegitasuna, esate baterako.
- Ez dira estaliko gure aseguratuaren instalazioen mantentze-falta nabarmenaren ondorioz gertatutako iragazketek eragindako kalteak.
- Euri-ura teilatu, teilatu lau edo fatxadetatik iragazteagatik sortutako kalteak, eraikinaren berezko bizio edo akatsagatik edo higiezinaren kontserbazio txarragatik gertatzen direnean.
- Iragazketak aldameneko finketan edo lokaletan egindako eraikitze- edo eraiste-lanen ondorioz gertatzen direnean sortutako kalteak.
- Aseguratutako arriskua aseguratuta dagoen eraikina eraikitze edo konpontzeko lanen ondorioz sortutako kalteak.
- Ez dira estaliko akuarioak eta/edo arrainontziak, ezta halakoak hausteagatik gertatutako kalteak ere.
- Barneko iragazketak, haien jatorria begi-bistakoa denean eta etxebizitzaren ohiko mantentze-lan eta kontserbazioa ez egitearen ondorio direnean.

Adibidea

- Hezetasun-orban bat azaltzen zaizu korridoreko paretan, bainugelako azulejuak zigilatzean egindako begi-bistako akats batengatik.
- Hezetasun-orban bat azaltzen zaizu korridoreko paretan, berogailuko ageriko hodi bat hondatuta dagoelako, denboran zehar izandako korrosio gradualaren ondorioz.
- Sukaldeko txorrotak jarioa du, baina ez du kalterik sortzen.
- Komuneko urak gainezka egin du kutxatilarren buxaduraren ondorioz, mantentze-lanak behar bezala egin ez direlako.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Edukiztaileak balio estetikoak galtzea

Estaltzen dira

→ Baldin eta bere jatorria berme hauek estalitako ezbeharra bada:

- Suteak, tximistak eta leherketak
- Arrisku osagarriak
- Urak eragindako kalteak
- Lapurretak eragindako kalteak

→ Edukiztailearenak diren elementu kaltetuen kalte-ordaina emango da, Baldintza Partikularretan adierazitako zenbatekoaren mugarekin, kaltetutako zatia konpontzeak haren hasierako harmonia estetikoak hondatzen duenean.

→ Zaharberritzeak ezbeharrek zuzenean kaltetutako elementuak hartuko ditu barnean, baita hasierako harmonia estetikoak berreskuratzea lortzeko kaltetuta geratzen direnak ere, elementu horiek **dauden barrundegira mugatuz**.

Barrundegi gisa hartuko da etxebizitza osatzen duten egonleku/gela bakoitza (sukaldea, egongela, korridorea, logela etab.).

Beirak, kristalak eta loza sanitarioak:

Estaliko dira:

→ Hainbat alde dituzten ateetako eta leihoetako kristalen balio estetikoaren galerak (ate bikoitzenak barne), kalterik ez duen kristala bezalako batekin ordeztu ezin direnean.

Ordezpen horretarako **muga 300 eurokoa izango da**.

→ Loza sanitarioaren elementuen **kolore-desberdintasunak** eragindako balio estetikoaren galerak, kaltetuen antzekoekin ordeztu ezin direnean.

- Gehieneko muga 300 eurokoa da.
- Koloreak desberdintzat joko dira haien oinarrizko gama bat ez datorrenean. Hau da, zuriaren gama osoa, beraz, kolore berekoa izango litzateke (zuria), eta ez litzateke kolore-desberdintasunik egongo.

Estaltzen dira



- Aseguratutako etxebizitzaren barruan kokaleku edo fatxada bera duten toldo pribatiboen arteko zaharberritze estetikoa estaliko da.
- Lehengo material berdinekin ordeztea ezinezkoa bada, jatorrizkoen antzeko ezaugarriak dituzten materialekin zaharberrituko da.

Berme honetarako aseguratutako zenbatekoa lehen arrisku gisa tratatuko da.

Estaldura hau zaharberritzea benetan gauzatzera baldintzatuta geratzen da, eta, horretarako, Seguros Lagun Arok beretzat gordetzen du hori egiaztatzeko eskubidea, baita hori frogatzen duten konpontze-fakturak eskatzekoa ere.

Adibidea

- Konketa loza puskatu da, kolonia-poto bat erori delako. Konketa izokin-kolorekoa da, eta merkatuan ez dago kolore bereko piezarik. Konketa kalitate antzekoa duten beste koloreko batekin ordeztuko da, baita bainugelako gainerako loza ere, adierazitako mugekin.

Ez dira estaltzen



- Zaharberritze estetikoaren gastuak, kaltea gertatu arretik konposiziorik estetikarik ez zegoenean.
- Bainuontzien eta/edo dutxa-plateren zaharberritze estetikoa.
- Fatxaden eta kanpoko hormen eta pertsianen zaharberritze estetikoa
- Aseguratutako etxebizitzaren toldo pribatibo eta partikularren eta komunitatearen toldoen arteko zaharberritze estetikoa.
- Balkoietako edo terrazetako kristalen zaharberritze estetikoa.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Edukiak balio estetikoak galtzea

Estaltzen dira

→ Baldin eta haien jatorria berme hauek estalitako ezbeharra bada:

- Suteak, tximistak eta leherketak
- Arrisku osagarriak
- Urak eragindako kalteak
- Lapurreak eragindako kalteak

Ondasun higigarrietako **altzari-elementuen** kalte-ordaina emango da lehen arriskuan eta Baldintza Partikularretan zehaztutako zenbatekoarekin mugarekin, moduluz osatutako multzo baten zati direnean eta kaltetutako zatia konpontzean multzoaren hasierako harmonia estetikoak hondatzen duenean.

Moduluz osatutako ondasun higigarritzat kasu hauek bakarrik joko dira:

- Sukaldeko altzarien multzoa.
- Bainugelako altzarien multzoa.
- Egongelako altzarien multzoa.
- Logeletan, eheburuak eto gau-mahaiek osatutako multzoa, gau-mahaiaik, armairuak, jantzigela eta tiraderak.
- Modelo edo bilduma bereko sofa-multzoa.
- Aulki-multzoa.

→ **Zaharberritzea kaltetutako ondasunak dauden barrundegira mugatuko da.** Barrundegi gisa hartuko da etxebizitza osatzen duten egonleku/gela bakoitza (sukaldea, egongela, korridorea, logela etab.).

→ Lehengo material berdinekin ordezteak ezinezkoa bada, jatorrizkoen antzeko ezaugarriak dituzten materialekin zaharberrituko da.

Berme honetarako aseguratutako zenbatekoa lehen arrisku gisa tratatuko da.

Estaldura hau zaharberritzea benetan gauzatzera baldintzatuta geratzen da, eta, horretarako, Seguros Lagun Arok beretzat gordetzen du hori egiaztatzeko eskubidea, baita hori frogatzen duten konpontze-fakturak eskatzekoa ere.

Gastu estetikoengatik kalte-galeren eskubidea galdu egingo da, jatorrizko kalte zuzenaren ordaintetaren exekuziotik kontaktzen hasi eta sei hilabeteko gehieneko epean konpontzen ez bada.

Adibidea

→ Sukaldeko kanpaiak su hartu du, eta altzariaren zati bat kaltetu da. Ordeztean, kolorea ez datoz bat altzariaren gainerako zatiekin. Multzoaren modulu guztiak ordeztuko dira.

Ez dira estaltzen



- Eragin gabeko egonlekuen edo gelen zaharberritze estetikoaren gastuak.
- Zaharberritze estetikoaren gastuak, kaltea gertatu aurretik konposiziorik eta/edo estetikarik ez zegoenean.
- Marradurak, atzamarkadak, altxatuak edo urratuak eta, orokorrean, gainazala hondatzen denean.
- Bildumen, liburutegien eta, oro har, ondasun higigarrien multzoen edo jokoen desantolaketa edo galera.
- Aseguru Etxeak halako gastuak ordaindu izan balitu eta Aseguratuak erabakiko balu kohesio estetikoa ez zaharberritzea, Aseguratuak ordaindutako kalte-galeraren eta egindako konponketaren kostuaren arteko aldea itzultzeko betebeharra izango du.
- Gastu estetikoengatiko kalte-ordainerako eskubidea galdu egingo da, gastu horiek eragiten dituen konponketa egiten ez bada jatorrizko kalte zuzenaren ordainketaren exekuziotik kontaktzen hasi eta sei hilabeteko epean.
- Apaingarriak, esate baterako, gortinak, alfonbrak, margolanak, lanparak, etxeko tresneria, eta, oro har, estaldura-eremuan espresuki zehaztuta ez dauden ondasunak.

Adibidea

→ Sofa baten zatia errez gero, sofaren tapizeria osoa aldatuko da, baina ez da aldatuko egonlekuko beste altzarien edota apaingarrien tapizeria (aulkiak, gortinak etab.).

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Kristalak haustea

Estaltzen dira

→ Kalte-ordaina emango da, Baldintza Partikularretan adierazitako zenbatekoaren mugarekin, hauek ISTRIPUZ HAUSTEAREN ondorioz sortutako zuzeneko kalte materialengatik:

- Kristalezko itxiturak edo etxeko kristal, igerileku-estalki eta bainugelako manparen kristalaren ordezkioak.
 - Aseguratutako etxebizitzaren ate, leiho, altzari, mahai eta barneko hormetan instalatutako beirak, ispiluak, kristalak eta metakrilatoak, bai eta labeen, plaka bitrozeramikoen, hozkailuen (kristalezko apal horizontalak ere bai), garbigailuen, beheko suen edo estufen parte finko direnak ere.
 - Marmolez, granitoz edo silexez eta haien eratorriekin egindako mahai, komoda, komuneko edo sukaldeko altzarien parte diren tapak edo mahai-gainak.
 - Lozaz, zuntzez, arbelez edo silexez zein haien eratorriekin egindako konketak, bidetak, komunak eta dutxa-platerak.
 - Lozaz edo silexez zein haien eratorriekin egindako harraskak eta bainuontziak.
 - Bainugelako manparetan kristala edo kristalaren ordezkioak birjartzea. Aseguru Etxeak bidalitako profesionalen iritzi teknikoaren arabera, ezbeharrean hondatutako kristala ezin bada besterik gabe ordeztu, kristalaren inguruko marko eta molduren gastuak ere estalduran sartuko dira.
- Halaber, halakoak jartzeak sortutako gastuak estaliko dira.

Estaldura horren eraginkortasuna, hain zuzen, Aseguru Etxeak izendatutako teknikariek egiten duten kalteen egiaztapenaren mende geratuko da.

Adibidea

- Aire-korrante batek erakusleihoko kristala haustea.
- Bainuko apala erori da, eta konketako loza hautsi du.
- Armairutik kazola bat erori, eta bitrozeramikaren kristala hautsi da.

Ez dira estaltzen



- Gainazaletan zein merkurioz estalitakoetan marradurek, atzamarkadek, altxatuek edo bestelako narriadurek eragindako kalteak.
- Modu desegokian edo euskarri zein ainguragarririk gabe jarrita egoteagatik jasandako kalteak eta gastuak.
- Kaltetutako piezak barnean hartzen dituzten markoek edo moldurek izandako kalteak (bainugelako manparen kasurako deskribatutako kasuan izan ezik).
- Hautsitako lanparak, beirateriak, baxerak eta, orokorrean, etxeko tresneria.
- Hautsitako edozein izaeratako objektu apaingarriak, margolanak, optikako kristalak eta irudi- eta/edo soinu-aparatuak edo aparatu elektronikoak.
- Zoruak, paretak edo sabaiak osatzen dituzten marmol eta granito hautsiak.

Adibidea

- Argazki baten markoko kristala hautsi da.
- Hautsitako bideteko txorrotak ordezteak, berrirako balio ez badute.
- Betaurrekoen kristalak hautsi dira.
- Objektu bat erori da bainuontzira, eta zartatu bat eragin du.
- Aseguratutako ondasunen bisagrak, euskarriak eta barneko mekanismoak haustea.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Bestelako galerak

Baldin eta jatorria kalte materialen bermeak barnean hartutako ezbehar bat bada, eta bere kontratazioa baldintza partikularretan jasota badago:

Estaltzen dira



- SALBAMENDUKO eta HONDAKINAK KENTZEKO gastuak eta kalteak.
- Sutea gertatuz gero, SUHILTZAILEAK JOATEAGATIKO udal-tasaren kostua.
- Aseguratutako ondasunetan edo aseguratutako ondasunen ondokoetan sute bat saihesteko, mozteko edo itzaltzeko, zabaldu ez dadin, Agintaritzak edo Aseguratuak hartutako neurrien ondorioz izandako kalteak, **neurri horiek aplikatzeak sortzen dituen gastuak kanpoan utzita.**
- **Aseguratua** aseguratutako **etxean biziko balitz**, Aseguratzailerak **altzariak lekualdatzearen eta antzeko etxebizitza bat alokatzearen** arrazoizko gastuak ordainduko ditu (etxebizitza aseguruaren alokairua kenduta, alokatua bada), aseguratutako etxebizitzan ezin bada bizi egindako kalteak konpontzeko obrak direla-eta, urtebeteko errentaren mugarekin eta Edukizaileraren zenbateko aseguruaren % 15aren mugarekin. Aseguratutako etxebizitzan urte-saso jakin batzuetan bakarrik bizi bada jendea (urte-sasoiko etxebizitza bada), aurreko gastuak gehienez bi hilabeteko errentara mugatuak geratuko dira.

Etxebizitza aurkitu arte, behin-behineko ostalua bermatuko da aseguruaren bizilekutik hurbil dagoen ostalaritza-establezimendu batean (hiri berean), pentsio osoko erregimenean, eta ikuztegi-gastuak barne, **Baldintza Partikularretan adierazitako mugara arte.**

Aipatutako gastuak dokumentu bidez justifikatu beharko dira.

- Estaliko dira, era berean, altzari-gordelekura edo behin-behineko etxebizitzara **lekualdatzeko, bertan egoteko eta bertatik itzultzeko** gastuak. Hilabetez gehienez ere.
- **Aseguratua jabea bada**, aseguratutako **etxebizitza alokatuta badu** eta baldintza partikularretan horrela jasota badago, Aseguratuak benetan jaso gabe utzi dituen alokairuen galerak, etxebizitza desgaituta gelditzeagatik. Bizitzeko ezintasunaren iraupena urtebetekoa izango da gehienez, edukizaileraren zenbateko aseguruaren % 15aren mugarekin.

Ez zaizkio inola ere maizterrari ordainduko, konponketak egin bitartean etxea hustu beharrak eragiten dizkion gastuak.

→ **Urgentziazko utzarazpena:**

Agindu administratibo edo judicial bidez eta pertsonen segurtasunagatik aseguratutako etxebizitza dagoen eraikina urgentziaz utzi beharko balitz, eta higiezinaren **aurri-deklarazioaren espediente administratiboa ez bada**, aseguratuen behin-behineko ostatua bermatuko da aseguruaren bizilekutik hurbil dagoen ostalaritza-establezimendu batean, pentsio osoko erregimenean, eta ikuztegi-gastuak barne, **100 euro pertsona bakoitzeko gehienez eta 3.000 euro gehienez, gastuak alde aurretik dokumentu bidez justifikatuz gero.**

Aseguratutako etxebizitzan txakurren edo katurren bat biziko balitz, animalientzako egoitza batean egon ahal izatea bermatzen da, 10 egunez gehienez, eta eguneko 12 euroko mugarekin animalia bakoitzeko.

→ Akzioak, obligazioak, funts publikoak edo ordezkagiriak eta banku-polizak adierazten dituzten TITULU ETA BALOREEN BIKOIZTUAK LORTZEKO gastuak, baldin eta ezbeharrak gertatzen den unean dokumentu horiek bazirela egiaztatzen bada.

→ Suteen, Tximista eta Leherketen, Arrisku Osagarrien eta Urak Sortutako Kalteen estaldurek kaltetutako DOKUMENTU PERTSONALAK (hala nola Nortasun Agiri Nazionala, Gidatzeko Baimena, Pasaporteak eta antzekoak) berriro lortzeak sorrarazten dituen gastuak.

→ Aseguratuak edo beraren ardurapean dauden eta berarekin bizi diren pertsonen **bi egunetik gorako eta hiru hilabetetik beherako** bidaia edo aldi baterako desplazamendua dela-eta, hoteletan edo aseguruaren jabetzakoak ez diren apartamentu edo etxebizitzetan (kanpinak eta autokarabanak ez besteetan) utzitako eta edukiaren parte egiten duten DESPLAZATUTAKO ONDASUNAK (**ebasketak edo galerak izan ezik**).

Era berean, Aseguru Etxeak erantzungo du aurreko paragrafoan aipatzen den bidaiaren kariaz ondasun aseguratuek ibilgailu garraiatzailearen istripu baten ondorioz jasaten dituzten kalteez ere, baina **ez lapurretatik, ebasketatik, espoliaziotik, eta galtze hutsetik ondorioztatzen direnez.**

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Erabateko aurria

Estaltzen dira



→ Bermea kontratatzen bada eta Baldintza Partikularretan ezarritako mugarekin, Hirugarrenek aseguratutako etxebizitza dagoen etxebizitzaren edo eraikinaren mugakide diren finka edo eraikinen gainean egindako eraikuntza-obren ondorioz, edo alboko kaleetan edo lurpean egindako obra publikoen ondorioz sortutako kalte material zuzenak.

Kalteek zuzeneko eragina izan beharko dute aseguratutako eraikinaren edo etxebizitzaren egiturazko elementuetan, haien erresistentzia eta egonkortasuna arriskuan jarritz. **Estaldura ordaintzeko ezinbesteko baldintza izango da agintari eskudunak Erabateko aurria deklaratzeko eta aseguratutako arriskua eta kokatutako eraikina uztea.**

6 hilabeteko gabealdia ezartzen da estalduraren prestaziorako.

Berme honek eraikuntzarako kalteen hamar urteko bermeko aseguruaren edo lehendik dagoen beste edozein aseguruaren gehigarri gisa edo halakorik ez dagoenean jardungo du.

Estalduraren ezbeharraren kalte-ordaina –eraikina urgentziaz uzteagatik gasteak barne– ez da inola ere izango Edukitzaile eta/edo Edukiarentzat aseguratutako zenbatekoa baino handiagoa.

Adibidea

→ Metroko obrek pitzadurak eragiten dituzte aseguratutako etxebizitza kokatuta dagoen eraikinaren egiturazko elementuetan, eta udal-teknikariek erabateko aurri deklaratu dute eraikina uzteko betebeharrarekin.

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako etxebizitza kokatuta dagoen eraikinari ez bazaio egin higiezinaren nahitaezko ikuskapen teknikoa, aplikatu beharreko legeriaren arabera, edo aurkako txostena egin bada eraikin horren egonkortasuna arriskuan jartzen duen arrazoiren batengatik, edo hirigintza-aurriaren legezko egoera deklaratzeko prozedura hasi bada, kalteak ez dira estaltzen.
- Asegurudunak ezagutzen dituen eraikuntza-bizioen edo oro har mantentze-eta kontserbazio-faltaren ondoriozko kalteak.
- Aseguratutako etxebizitza kokatuta dagoen eraikinaren egituraren parte ez den eta haren egonkortasuna arriskuan jartzen ez duen edozein elementuren kalteak, bai eta eraikuntza independenteenak ere (garaieak edo trastelekuak, inguratzeko hormak, jolaserako guneak, igerilekuak edo kirolerako guneak).
- Birgaitzeko edo handitzeko obretan dauden eraikinetan kokatutako etxebizitzetan izandako kalteak, horiek egitura- edo karga-elementuei eragiten badiete.
- Eraikitzean edo muntatzean etxebizitzak jasandako kalteak.
- Legearen aurka okupatutako etxebizitzetan edo etengabe abandonatuta dauden etxebizitzetan izandako kalteak.
- Eraikinaren egituraren segurtasunaren arriskurik ez dakarten kalteak, Erabateko aurriaren eta higiezina uztearen adierazpen ofizialik gabe.
- Hirugarrenek polizaren kontratua hasi aurretik eragindako kalteak, nahiz eta polizaren indarraldian zehar eragina izan.
- Lur-finkapenek, hondoratzeek, luiziek, lur-jausiek edo lur-biguntzeek eragindako kalteak.

Adibidea

- Euri-jasen ondorioz gure etxebizitza aseguratua dagoen lurak lur-jausiak eragin ditu, eta, ondorioz, luiziak.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Lorategiak hondatzea

Estaltzen dira



→ Kalte-ordaina emango zaie, Baldintza Partikularretan ezarritako mugarekin, aseguratutako etxebizitzaren lorategian dauden landare, lore, zuhaitz eta altzariek bermeetan estalitako edozein arriskuren ondorioz izandako kalteak.

SUTEA, TXIMISTA ETA LEHERKETA

ARRISKU OSAGARRIAK

Ez dira estaltzen



→ Aplikatzeakoak izango dira bermeen jasotako eskusioak.

SUTEA, TXIMISTA ETA LEHERKETA

ARRISKU OSAGARRIAK

→ Ondo gordeta edo babestuta ez dauden eta erraz mugitu daitezkeen altzarien gaineko kalteak, etxebizitzan inor bizi ez bada 2 egun baina gehiagoko epe batean.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Istripuz gertatutako bestelako kalteak

Estaltzen dira



Kalte materialen gainerako bermeetan zehaztutako istripuez bestelako edozeinen ondorioz ondasun aseguratuek jasan ditzaketen zuzeneko kalte materialak.

Kontuan hartu:

Istripua bat-batean, ustekabean eta Aseguratuaren borondateaz kanpo sortutako gertaera bat da.

Berme honek ez du eratzen osagarri bat eta ez ditu ordeztzen ere Kalte Materialen gainerako bermeak; horrela, Kalte Materialen gainerako bermeetan ezarritako prestazioak, mugak eta eskusioak oso-osorik aplikatuko dira, kausa berme horietan ezarritako suposamenduetakoren bati baldin badagokio.

Barne hartzen dira ikus-entzunezko gailu elektronikoetako pantailen hausturak (telebistak, ordenagailuak, eramangarriak, tabletak edo telefono mugikorrak), nahiz eta ekipoak behar bezala funtzionatu, betiere **etxebizitzaren barruan gertatu badira**.

Ezbehar bakoitzeko 100 euroko frankizia aplikatuko da.

Adibidea

- Apal bat bat-batean eta ustekabean erori da.
- Kaleko obra batzuen ondorioz pitzadura batzuk azaldu dira etxebizitzan.
- Istripuz emandako kolpearen ondorioz telebistaren pantaila hautsi da.

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako ondasunetan marradurak, atzamarkadak, altxatuak edo urratuak agertzen direnean edo, orokorrean, gainazala hondatzen denean, maila handiagoko beste kalte batzuetatik eratorriak ez badira.
- Ondasunak erabiltzeagatiko higadura edo narriadura, edota halakoen matxura mekanikoak, elektrikoak edo elektronikoak.
- Edozein kutsadura-motatatik eratorritako kalteak.
- Sitsek, harrek, termitek edo edozein intsektu-plagak eragindako kalteak.
- Desjabetze, konfiskazio, errequisa edo egitezko zein zuzenbidezko edozein gobernu edo agintek emandako aginduengatik sortutako kalteak.
- Kalte materialen gainerako bermeetan espresuki kanpo utzitako kalteak.

Adibidea

- Hezetasun-orban bat azaldu zaizu korridoreko paretan, bainugelako azulejuak zigilatzean egindako begi-bistako akats batengatik.
- Objektu bat erori da bainuontzira, eta zartatu bat eragin du.
- Garbigailua hondatu da, motor-matxura bat dela-eta.

KALTE MATERIALEN BERMEAK

Maizterraren bandalismozko ekintzak

Estaltzen dira



Kalte-ordaina emango zaie, Baldintza Partikularretan ezarritako mugarekin, kaltea sortzeko helburu bakarrarekin etxebizitzako maizterrek banaka edo taldean egindako BANDALISMOZKO EDO ASMO TXARREKO EKINTZEN ondorioz sortutako kalte materialak, aseguratutako etxebizitzak ERRENTAMENDU-KONTRATUA INDARREAN badu, eta betiere maizterra kaleratzen bada edo etxebizitza uzten badu.

Ez dira sartzen errentan emandako etxebizitzaren erabilera normalaren ondoriozko kalteak.

EZBEHAR BAKOITZEKO 150 EUROKO FRANKIZIA APLIKATUKO DA.

Adibidea

→ Maizterrak errentatzaileari etxea itzultzen dionean, sofa eta ateaq asmo txarrez zartatu dizkiotela ikusten du errentatzaileak.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, kontratatutako bermeak estaltzat hartuko dira, haietan adierazi den aseguratutako zenbatekoaren mugekin.

DENBORA-MUGAK

Estaldura Aseguratuaren Erantzukizun zibilera mugatzen da lehen aldiz indarraldian gertatzen diren kalteetarako, baldin eta horiek sortu dituzten gertaerak kontratuaren efektu-dataren ondoren gertatu badira eta erreklamazioa Aseguru Etxeari polizaren indarraldian edo kontratua azkendu ondorengo 24 hilabeteetan era fede-emailean jakinarazi bazaio.

KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGURATUAK ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA

Adibidea

Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Familiaren erantzukizun zibila

Estaltzen dira



Kalte-ordainak emango dira, honakoek egiten dituzten egintza eta omisioek hirugarren batzuen gorputzetan edo gauzetan kalteak eta kalte horietatik ondorioztatutako galerak sortzen dituztenean:

- Aseguratuak.
- Aseguratuaren ezkontideak, edo izatez bikotekide denak, Aseguratuarekin bizi bada.
- Bere seme-alaba ezkongabeek edo bere tutoretzapean dauden beste adingabeek, ezbeharraren unean Aseguratuarekin bizi badira eta aseguruaren objektua den etxebizitzan erroldatuta badaude.
- Odol bereko edo ezkontzagatiko beste familiartekoek, ezbeharraren unean Aseguratuarekin bizi badira eta aseguruaren objektua den etxebizitzan erroldatuta badaude.

Egintza eta omisio horiek erruz edo zabarkeriaz egindakoak direnean eta egotz dakizkiokeenak PERTSONA PRIBATU gisa eta bereziki arrazoi honengatik egindakoak direnean:

- **FAMILIABURU izatearen ondorioz**, bere ardurapeko pertsonen egintza edo omisioengatik.
- Afizionatu gisa **KIROLA EGITEAGATIK**.
- Arraun edo pedalen bidez, eta horrela bakarrik, eragiten zaien **ITSASONTZIAK erabiltzeagatik**.
- **IBILGAILU MOTOR GABEAK**, hala nola bizikletak, patinak eta horien antzekoak erabiltzeagatik.
- **ARMA zuriak edo suzkoak edukitzeagatikoak**, helburu zilegiekin erabiltzen badira eta horretarako behar den baimena edukiz gero.

Jarraitzen du...

Ez dira estaltzen



- Higiezinaren jabetzatik eratorritako erantzukizun zibila.
- Industria edo negozio bat ustiatzetik, lanbide batean aritzetik edo zerbitzu ordaindu bat ematetik, edota edozein eratako elkarreetan kargu edo jarduera bat betetzetik -ohorezko kargua izan arren- sortutako erantzukizuna.
- Motor-ibilgailuen zirkulaziotik eta arraun edo pedal bidez soilik eragiten ez zaion aireontzi edo itsasontziak erabiltzetik sortutako erantzukizuna.
- Aseguratuaren -edo bermeak babestutako gainerako pertsonen- esku erabiltzeko, zaintzeko edo garraiatzeko dauden ondasunei edo jabetzei eragindako kalteak.
- Ehizan aritzeagatik sortutako erantzukizuna.
- Apustu, desafio, lasterketa edo edozein eratako lehiaketetan edo halakoak prestatzen parte hartzearen ondorioz sortutako kalteak.
- Nahitaezko aseguru batek estali beharreko arriskuengatik sortutako kalteak, legezkoa gainditzen duena ere kanpoan geldituko da.
- Etxebizitzetan, eraikinetan edo halakoen instalazioetan egin beharreko mantentze- eta konponketa-lanei buruzko arauak, legeak, ordenantzak eta erregelamenduak nahita ez betetzeagatik sortutako kalteak.
- Mantentzeko eta kontserbatzeko behar-beharrezkoak ez diren obrak egiteagatik sortutako kalteak eta erabat birgaitzeko lanak eta zuzenean edo zeharka eraikinaren egiturazko elementuak ukitzen dituztenak egiteagatik gertatutako kalteak, exekutatzeko baimena edo lizentzia administratiboa behar badute.
- Aseguratuari eska dakioken erantzukizuna, berak edo bere erantzukizunpean dauden pertsonak doluz edo nahita egindako egintzengatik.
- Estaldura honen ondorioetarako etxeko animaliatzat hartutakoek bestelakoek eragindako kalteak.
- Hirugarren batzuei alokairuan emandako edo erabili eta gozatzeko utzitako etxebizitzek eragindako kalteak.
- Zehapenen eta isunen ordainketa, eta horiek ez ordaintzearen ondorioak.

Jarraitzen du...

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Familiaren erantzukizun zibila

Estaltzen dira

→ **ETXE-ZERBITZUko langileek** Aseguratuarentzat diharduten bitartean **egindako egintza eta omisioengatikoak**. Halakotzat jotzen dira ogibidetzat etxebizitza eta honen instalazioak zaintzea edo etxeko lanak egitea duten pertsonak.

→ **ETXEKO ANIMALIEN arduradun zinkunstantzial gisa**, eta halakotzat hartuko da ezbeharraren unean animalia kontrolpean duen pertsona; ez da nahitaezkoa izango etxeko animalia jabea izatea.

Aseguratuak txakur arriskutsu baten edo bat baino gehiagoren jabeak balira, polizan espresuki jaso beharko da. Txakur arriskutsuztat jotzen dira arraza hauek eta beren gurutzamenduak: Akita inua, dogo argentinarra, Bordelekoa, tibetarra, heltze-txakur kanariarra, Mallorcako heltze-txakurra, American Staffordshire terrierra, pitbull terrierra, rottweilerra, bullmastiffa, Fila brasildarra, Staffordshire bull terrierra, dobermana, Napoliko mastina eta Tosa inua.

Etxeko animaliak izango dira polizan aseguratutako etxebizitza berean bizi diren txakurrak, katuak, hegaztiak, kaiolan sartutako karraskariak, arrainak eta dortokak, **bestelako animalia guztiak baztertuz**.

→ Sutearen edo leherketaren ondorioz aseguratutako okupatzen duen **ETXEBIZITZA ALOKATUAK jasandako kalteengatik**, eta, halaber, etxebizitza altzari eta guzti alokatua bada, kausa horiengatik etxeko gauza eta tresnetan egindako kalteengatik.

Ondasun horietan urak egindako kalteengatikoak, horien erantzukizuna maizterrari egozten bazaio, **erantzukizun zibilerako kontratatutako kapitalaren % 10erainoko mugarekin**.

→ Aseguratuari familiaburu den bezainbatean egotz dakioken erantzukizun zibilagatikoak, Aseguratuak bidaia eta oporretan -gehenez ere 30 egun jarraituko epean- aldi baterako okupa ditzakeen etxe partikular, apartamentu, hotel- edo pentsio-gelako ondasun higiezinak eta higigarriak egindako kalteak direnean.

Kontzeptu honengatik ordaindu beharreko kopurua ez da erantzukizun zibilerako kontratatutako kapitalaren % 10 baino gehiagokoa izango.

→ **ESPAINIAKO LURRALDETIK KANPORA**, Estatu Batuetan, Kanadan eta Mexikon izan ezik, **izandako gertaerengatik** Aseguratuari edo bermeak babestutako pertsonetako edozeini egotz dakioken erantzukizun zibilagatik, **baldin eta gertaera horiek noizbehinka eta hiru hilabete baino gutxiagorako egiten den joan-etorriren batean gertatu badira**.

Kasu hau lurralde nazionalerako ezarritako baldintza beretan ematen da, eta aplikazio-eremuaren hedapen moduan bakarrik izango ditu ondorioak.

Ez dira estaltzen



→ Kutsadura.

→ Etxeko animalia aseguratuek eragindako kalteak, baldin eta kalte horien jatorria bada animalia horiek edukitzeko ezarritako arauak, legeak, ordenantzak edo erregelamenduak ez betetzea.

Adibidea

- Lagun batek utzi dizun argazki-kamera hondatu zaizu.
- Zure seme-alaba adingabe batek zure koinatuaren betaurrekoak nahi gabe hautsi ditu.
- Motorrez zoazela pertsona bat harrapatu duzu.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Familiaren erantzukizun zibila

Estaltzen dira



- **IBILGAILU MOTORDUNEAN GARRAIATUTAKO GAUZEK** egindako kalteengatikoak, baldin eta ibilgailu horiek soilik helburu partikularretarako erabiltzen badira, eta bere karga-ahalmena ez bada 750 kilo baino gehiagokoa.
- Bizikleta elektrikoen edo DGTk A eta B izendatutako mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (50 kg-ko pisura arte eta orduko 30 km-ko gehieneko abiadura) noizean behingo erabiltzaile gisa (jabea izan gabe eta hilabetean 8 egunetan baino gehiago erabili gabe).

60.000 euroko azpimuga ezartzen da bermerako.

Adibidea

- Zure seme-alaba adingabe batek leiho bateko kristala hautsi du baloiarekin.
- Patinetan zoazela pertsona bat harrapatu duzu.
- Txakurra paseatzen ari zinen, eta pertsona bati kosk egin dio.
- Motordun patinete batekin noizbehinka ibilita, oinezko bat harrapatu dut eta lesioak egin dizkiot.



ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzetik eratorritako erantzukizun zibila

Estaltzen dira

→ Baldintza Partikularretan kontratatutako bermearen mugarekin, Aseguratuak bizikleta elektrikoan edo DGTk A eta B izendatutako mugikortasun pertsonaleko ibilgailu batean (50 kg-ko pisura arte eta orduko 30 km-ko gehieneko abiadura) zirkulatzen duenean eragindako kalte materialak eta pertsonalak.

Aseguratuak ibilgailuaren jabea edo ohiko erabiltzailea (hilabetean 8 egunez gutxienez) izan beharko du, eta espresuki adierazi polizaren Baldintza Partikularretan.

Adibidea

→ Bizikleta elektrikoarekin zirkulatuz, oinezko bat harrapatu dut eta beso bat hautsi diot.

Ez dira estaltzen



- Apustu, desafio, lasterketa edo edozein eratako lehiaketetan edo halakoak prestatzen parte hartzearen ondorioz sortutako kalteak.
- Zirkulatzeko baliatzen ari garen ibilgailuen erabilerari buruzko arauak, legeak, ordenantzak eta erregelamenduak nahita ez betetzetik etorritako kalteak. Nahitaezko aseguru batek estali beharrekoak diren arriskuengatik sortutako kalteak. Legezkoa gainditzen duena ere kanpoan geldituko da.
- Bizikleta elektrikoak eta DGTk A eta B izendatutako mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (50 kg-ko pisura arte eta orduko 30 km-ko gehieneko abiadura) ez diren ibilgailuek eragindako kalteak.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Higiezinaren erantzukizun zibila

Estaltzen dira



→ Hirugarren batzuei eragindako kalte materialengatik edo gorputzekoengatik erantzule zibila izan daitekeen kalte-ordainen ordainketa, eta baita bere erruz edo zabarkeriaz egindako egintzengatik eta omisioengatik ere, ASEGURATUTAKO HIGIEZINAREN JABEA denez egoztekoak zaizkion neurrian, eta bereziki:

Aseguratuaren jabetzako higiezinan edo bertako edozein instalaziotan (esate baterako, igogailuan, karga-jasogailuan, telebista- edo irrati-antenan, garajea, igerilekua, lorategian edo antzekoetan) sortutako sute, leherketa edo uholdeek egindakoak.

Higiezinaren zerbitzura dauden enplegatuek (hala nola atezainek, etxezainek eta garbitasuneko langileek) beren lanari dagozkion eginkizunetan zabarkeriaz edo erruz egindako egintza edo omisioetatik sortutakoak.

Aseguruaren objektu den higiezina higiezin-multzo baten parte denean, higiezin-multzo horretako elementu komunek sortutakoak, Aseguratuari kalte-ordainetan eta gastuetan legokiokeen zatian, jabekidetzan duen ehunekoaren arabera, eta erkidegoak izenpetutako erantzukizun zibileko polizaren bermearen mugak gainditzen direnean.

Jabekideek edo maizterrek, horiekin bizi diren pertsonak eta higiezinaren zerbitzuan dauden enplegatuek jasandakoak, azken hauen kasuan, beren lan-jarduera dela-eta jasan ditzaketan kalteak salbuetsiz.

Adibidea

→ Hodi bat hautsi zaizu, eta urak kalteak eragin dizkio auzokideari.

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako higiezinan industria edo negozio bat ustiatzetik edo ordaindutako lanbide edo zerbitzu batean jardutetik sortutako erantzukizuna.
- Etxebizitzetan eta eraikinetan egin beharreko mantentze- eta konponketalanei buruzko arauak, legeak, ordenantzak eta erregelamenduak nahita ez betetzeagatik sortutako kalteak.
- Mantentzeko eta kontserbatzeko behar-beharrezkoak ez diren obrak egiteagatik sortutako kalteak eta zuzenean edo zeharka eraikinaren egiturazko elementuak ukitzen dituzten zaharberritze osoaren lanak egiteagatik gertatutako kalteak.
- Aseguratuari eska dakioken erantzukizuna, berak edo bere erantzukizunpean dauden pertsonak doluz edo nahita egindako egintzengatik.
- Jabekideei, maizterrei edo higiezinako enplegatuei pertsonalki egotz dakiekeen erantzukizuna.
- Higiezinaren Administratzailearen erantzukizun zibila, higiezinari buruzko jarduera profesionalean sortua denean.
- Zehapenen eta isunen ordainketa, eta halakoak ez ordaintzearen ondorioak.
- Kutsadura.
- Aseguratuaren zerbitzuan dagoen pertsonalak izandako lan-istripuetatik sortutako erantzukizuna.

Adibidea

- Etxebizitzan konponketak egiten ari zinen, paretak botaz, eta auzokidearen paretara pitzatu duzu.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

Fidantzak eta kostu judizialak

Estaltzen dira

→ Familiaren Erantzukizun Zibilaren bermeak edo Higiezinaren jabearen erantzukizun zibilaren bermeak estaltzen dituzten ezbeharren bat gertatuz gero, Aseguru Etxeak prestazio hauek ere hartuko ditu bere gain:

Aseguratuari eskatutako fidantza judizialak eratzea, prozedurako ondorio zibilak bermatzeko.

Kostu judizialak, polizan aurreikusitakoarekin bat Aseguru Etxeak eman beharreko kalte-ordainaren eta aseguruak ezbeharrean duen erantzukizunaren zenbateko osoaren arteko proportzio berean.

→ **Espresuki kontrakorik hitzartu ezean, Aseguru Etxeak bere gain hartuko du kaltetunaren erreklamazioari erantzuteko zuzendaritza juridikoa, eta bere kontura izango dira sortutako defentsa-gastuak. Aseguratuak behar den lankidetzak guztia eman beharko du Aseguru Etxeak bere gain hartu duen zuzendaritza juridikoari dagokionez.**

→ Aseguratuaren kontrako prozesu judizialetan kondena-epaia ematen bada, Aseguru Etxeak erabakiko du eskumena duen Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurtsioa aurkeztea komeni den ala ez; errekurtsioa jartzea ez dela bidezkoa ikusten badu, interesdunari jakinaraziko dio, eta honek askatasun osoa izango du errekurtsioa bere aldetik jartzeko. Azken kasu horretan, jarritako errekurtsioari emandako epaia Aseguru Etxearen interesen aldekoa baldin bada, Aseguru Etxeak bere gain hartu beharko ditu errekurtsioak sorrarazitako gastuak.

→ Aseguratuaren eta Aseguru Etxearen artean interes-gatazkarik sortuz gero, Aseguru Etxeak ezbehar horretan Aseguratuaren defentsaren kontrako interesak defendatu behar dituelako, horrela jakinaraziko dio Aseguratuari, baina urgentziazkoak izateagatik defentsarako beharrezkoak diren eginbideak gauzatzeko eragozpenik gabe. Kasu horretan, Aseguratuak erabaki ahal izango du hala ere zuzendaritza juridikoa Aseguru Etxeak egitea nahi duen, ala bere buruaren defentsa beste pertsona baten esku jarri nahi duen. **Azken kasu horretan, Aseguru Etxeak zuzendaritza juridikoaren gastuak ordaindu beharko ditu, 600 €-ko mugaraino.**

KALTEEN ERREKLAMAZIOA (Defentsa juridikoko aseguruia)

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, kontratatutako bermeak estalitzat hartuko dira, haietan adierazi den aseguratutako zenbatekoaren mugekin.

KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGRATUAK ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA

Adibidea

Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA (Defentsa juridikoko aseguru)

Kalteen oinarrizko erreklamazioa

Estaltzen dira

→ Baldintza Partikularretan aseguraturako ondasunetan eragindako kalte materialen, pertsonalen eta galeren erreklamazioa adiskidetasunez edo judizialki egitea, kalte horiek poliza honetako Erantzukizun Zibilaren bermeak babestutako pertsoneri eragin zaizkienean, hirugarren baten ez-kontratuzko egintzaz edo omisioz gertatu denean.

Kalteak eragindako hirugarren hori Administrazio Publiko bat izango balitz, edo erreklamazioa bide administratibotik egin beharko balitz, **aurretiko erreklamazio administratiboa soil-soilik estaliko da, eta ez dira inola ere bermatuko administrazioarekiko erreklamazio judizialaren gastuak.**

→ Aseguratuaren interesen ZIGOR-ARLOKO DEFENTSA JURIDIKOA prozesu judizialean, erreklamazioaren objektua erruz edo zabarkeriaz egindako egintza eta omisioek sortua denean eta Baldintza Orokor hauetako familiaren erantzukizun zibilaren estaldurak bermatuta daudenean.

NOLANAHI ERE, 150 EUROTIK BEHERAKO AUZIAK EZ DIRA ESTALIKO.

Aseguratuak Aseguru Etxeak izendatutako abokatuak ez beste bat hautatuz gero, kalte-ordainaren muga hauek aplikatuko zaizkio:

→ Ordainsariak, gastuak eta peritu-eskubideak, 600 €-ko muga.

→ Defentsa eta ordezkaritza ordainsariak eta prozesuaren gainerako gastuak eta kostuak, 3.000 €-ko muga.

Estalduraren lurralde-eremua **Espainiako lurraldean gertatu diren eta Espainiako epaitegi eta auzitegien eskumena diren ezbeharrei dagokie, eta Espainiako Zuzenbideari buruz.**

Adibidea

→ Pitzadurak atera zaizkizu etxebizitzako paretetan ondoko etxe bat eraitsi dutelako.

→ Ibilgailu motordun batek harrapatu zaitu oinezkoentzako pasabide bat gurutzatzen ari zinela.

→ Espaloitik zindoazela, zaintiratua egin duzu hautsitako baldosa bat zapaltzeagatik.

Ez dira estaltzen



- Administrazioarekiko auzibideko erreklamazio-gastuak.
- Kalte material edo pertsonal batetik ez datozen kalteen erreklamazioa.
- Kalte-ordainen, zehapenen eta isunen ordainketa, ezta haien kontrako errekursoak ere, edo agintari eskudunek halakoak ezartzearen ondoriozko edozein gastu.
- Enpresen, profesionalen edo partikularren kontra egin beharreko erreklamazioak, zerbitzuen prestazioak eta/edo lanen exekuzioak gaizki ematearen ondoriozkoak direnean, baita gas-, ur-, elektrizitate- eta telefono-hornidurarako jardueretatik eratorritako erreklamazioak ere.
- Aseguratuak izenpetutako kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik sortutako erreklamazioak.
- Jatorria arriskua kokatu den higiezinaren edo instalazioen proiektuan, eraikuntzan edo eraisketan duten erreklamazioak, edo arrazoi horiekin zerikusia dutenak, eta baita harrobiek, meategiek eta fabrika-instalazioek sortutakoak ere.
- Eraikuntzako bizioengatiko erreklamazioak.
- Poliza honetako Aseguratuek elkarri aurkeztutako erreklamazioak edo haietako edozeinek Aseguratzaillearen kontra aurkeztutakoak.
- ZIGOR-ARLOKO DEFENTSA, familiaren erantzukizun zibilaren bermearen arabera Aseguratuaren izaera dutenak gertaera mingarriren bat egiteagatik inputatzen dituztenean.
- Aseguratuaren jarduera profesionala kausa den erreklamazioak.
- Poliza indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi diren gertaerak.
- Aseguratuak doloz egindako egintzengatik jasandako kalteen erreklamazioa.
- Aseguratuak jasandako lesioak, ibilgailu partikularren bidaiari gisa.

Adibidea

- Muntatzaileak, zure etxebizitzan armairu bat jartzean, zura kaltetu dizu.

Estaltzen dira



Zerbitzu honen bitartez Lagun Arok abokatu bat eskainiko dio Aseguratuari:

→ **hark telefonoz aholkua** emango dio, haren bizitza partikularrean dituen eskubideen norainokoari buruz; era berean, ondoko gaietan ondoen defendatzeari buruz:

→ **Etxebizitza**, salmenta-kontratuak, alokairu-kontratuak, etxe-zerbitzuko langileen kontratazioa, bizilagunen batzarrak, lanak.

→ **Familia**, ezkontzako ekonomia-erregimena, izatezko bikoteak, banantzeak, adopzioak, babeseko erregimenak, jaraunspenak, testamentuak.

→ **Zigor-arloko gaiak**, delituak edo faltak, salatzaile nahiz inputatu gisa.

→ **Lana**, kontratu-motak, nominak, hitzarmenak, kaleratzeak, kalte-ordainak, zehapenak, laneko istripuak, enplegu-erregulazioko espedienteak, Gizarte Segurantzaren prestazioak, kooperatiben erregimen soziala.

→ **Errentaren aitorpena..**

→ **Automobila**, zirkulazio-istripuak, alkoholemia.

→ **Kontsumitzaile gisa egindako erreklamazioak**, kontsumitzailearen eskubideak, produktuaren akatsak, bankuei egindako erreklamazioak, datu pertsonalen babesa, teleerosketa edo urgentziazko gaiak, zaratak edo etxebizitzako bestelako eragozpenak, zirkulazio-istripuak, alkoholemia-probak, lapurretak, borrokak, atxiloketak.

→ **Kontratuak edo bestelako dokumentuak idatzi eta/edo berrikusiko ditu**, telefonoz adierazitakoaren arabera, eta emaitza-dokumentua 45 orduko epean bidaliko dio haren egoitzara, gai eta auzi hauei dagokienez:

→ **Salmenta**, seinale-kontratuak eta etxebizitzaren salmenta, ibilgailuak, beste ondasun batzuk.

→ **Alokairuak**, alokairu-kontratuak.

→ Etxebizitzaren ezkutuko akatsengatik edo bizioengatik errentatzaileari, maizterrari, jabeen komunitateari, telefonia-enpresei, bankuei, tailerrei eta dendei egindako **erreklamazioak**.

Ez dira estaltzen



- Zirkulazioko zehapenei buruzko aholkularitza eta edozein kudeaketa.
- Seguros Lagun Aroren aurkako aholkularitza eta edozein kudeaketa.
- Eskatzen diren kontratuak edo erreklamazioak idaztetik edo berrikustetik erator daitezkeen bitartekotza-kudeaketak.
- Administrazio publikoaren Ondarearen erantzukizun zibiletik eratorritako erreklamazioak.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA

(Defentsa juridikoko aseguru)

Kontsumitzailearen defentsa juridikoa

Estaltzen dira

Adiskidetasun-bidetik egindako Kalte Erreklamazioak eta aseguru-izaera duen edozein pertsonari Espainian bizitza pribatuaren eremuan sortutako kalte-galeren arduradunaren kontra egindako erreklamazio judizialen ordainketa, kasu hauetan:

→ **Ondasun higigarrien erosket**a, gauza higigarrien gaineko kontratuak ez betetzeari buruzko auziak, zeinetan Aseguratua parte den, hala nola salerosketako, gordailuko, trukeko, pignorazioko eta antzeko beste kontratu batzuetakoak. **Gauza higigarritzat joko dira eskusiboki dekorazio-objektuak eta altzariak (zaharrikak salbu), etxetresna elektrikoak, gauza pertsonalak eta elikagaiak, baldin eta ondasun horiek Aseguratuarenak badira eta bere erabilerarako baditu. Konpainiako animaliak gauza higigarrien barnean sartzen dira.**

→ Aseguratua titularra eta azken hartzailea den **zerbitzu-kontratuak** zerbitzu-errentamenduko kontratu hauek ez betetzeagatik:

- o Profesional tituludunen zerbitzuak.
- o Medikuntza- eta ospitale-zerbitzuak.
- o Bidaia-, turismo- eta ostalaritza-zerbitzuak.
- o Irakaskuntza eta eskola-garraioko zerbitzuak.
- o Garbiketako, arropa-garbiketako eta tindaketako zerbitzuak.
- o Etxe-aldaketako zerbitzuak.
- o Fabrikatzaileak espresuki baimendutako etxetresna elektrikoak konpontzeko zerbitzu tekniko ofizialak.

→ Aseguratua titularra eta azken hartzailea den **hornidura-kontratuak**, **300 euroko zenbatekoa gaintzen bada**, ur, gas, elektrizitate eta telefoniako -finkoa edo mugikorra eta ADSLa eta telebista-kate pribatuak- kontratuak ez betetzeagatik.

→ **Etxebizitzan eraberritze- eta konponketa-lanak egiteko kontratu**etan, etxebizitzan edo bertako instalazioetan obrak, konponketak edo kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko kontratuak ez betetzeagatik, baldin eta zerbitzu horien ordainketa osoa aseguruari badagokio.

→ **Maizter gisako alokairu-kontratu**etan, errentatzailearen aurrean, alokairu-kontratuetatik eratorritako gatazketan.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Adibidea

- Tindategian garbitzeko eraman duzun berokian kalteren bat egin dizute.
- Kontratatu duzun iturginak etxean kalteak eragin dizkizu etxebizitzan lanean ari zenean.

Ez dira estaltzen



- Alokairu-kontratuak ez ordaintzetik eratorritako utzarazpen-epaiketak.
- Aseguru Hartzaileak, Aseguratuak edo Onuradunak bere borondatez eragindako gertaerak edota horien aldetiko dolu edo erru larria egon den kasuak, epai irmo baten arabera.
- Aseguratuaren jabetzakoak diren edo, aldizka bada ere, bere erantzukizunpean dauden ibilgailu motordunekin eta horien atoeikin zerikusia dutenak.
- Aseguratuaren lanbide liberalaren jardueran sortzen direnak edo haren bizitza pribatutik kanpoko edozein jardueratitik eratorritakoak.
- Poliza honetako Aseguratuek elkarri egin diezaioketen edozein erreklamazio edota Aseguratuetakako edozeinek polizako Aseguratzailaren kontra egindakoak.
- Informatikarekin edo Kode Zibileko 336. artikuluan higidarritzat jotzen diren gauzekin zerikusia dutenak, hau da, errenta edo pentsioak, zerbitzu publikoei buruzko kontratuak eta hipoteka-maileguak ordezkatzan dituzten zedula edo tituluak.
- Jatorria greba, ugazaben itxiera, laneko gatazka kolektibo edo enplegu-erregulazioetan duten auziak edo haien ondoriozkoak direnak.
- Kontratu hau hutsaltzen edo deuseztatzen denetik bi urte igaro ondoren deklaratzan diren aseguratutako kasuak.
- Bermea indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi diren gertaerak.

Adibidea

- Konpontzera eraman duzun autoari kalteren bat egiten diote tailerrean.
- Edozein administrazio publikori egindako erreklamazioak.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA

(Defentsa juridikoko aseguruia)

Defentsa juridiko zabaldua

Estaltzen dira

Polizaren baldintza partikularretan espresuki sartuz gero, Aseguratuaren edo aseguratutako izaera daukan edozein pertsonaren bizitza pribatuaren esparruari dagokion Espainiako lurraldean defentsa eta eskubideen erreklamazioa estaliko dira, kasu hauetan:

→ Baldintza Partikularretan deklaraturako etxebizitzari dagozkion eskubideak:

- Ke- edo gas-isuriek sortutako eragozpenengatik Aseguratuak inguruko auzokoei, gehienez 100 metrora daudenei, egin beharreko erreklamazioak.
- Aseguratuak Hirugarrenei egiteko erreklamazioak, aseguratutako etxebizitzaren inguruko zortasun, muga edo mehelinei buruzko gatazkengatik.
- Aseguratuaren interesen defentsa eta erreklamazioa Jabekideen Erkidegoak hartutako erabaki kaltegarrien aurka, baldin eta legez adostutako kuoten eta derramen ordainketan egunean badago.

→ Laneko erreklamazioak:

- Aseguratuaren defentsa, adiskidetzeko-organismoen aurrean eta lan-arloko jurisdikzioan lan egiten duen enpresariarekin edo erakunde publikoarekin sortzen diren gatazka indibidualetan eta gizarte-prestazioen erreklamazioetan.
- Dagokion pentsioari buruzko eskubideen erreklamazioa

→ Zuzenbide Fiskala:

Aseguratuaren interesak defendatzeko idazkien erredakzio-lanak barne hartzen ditu berme honek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitopenekin zuzeneko lotura duten erreklamazioetan.

PRESTAZIO HAU JASOTZEKO ESKUBIDEA IZATEKO, ASEGURATUAK BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DIO SEGUROS LAGUN ARORI, ERREKURRITZEKO EPEAREN MUGA-EGUNA BAINO 5 EGUN LEHENAGO GUTXIENEZ. BEHARREZKOA DA ASEGURATUAK ALEGATU EDO ERREKURRITU NAHI DUEN ADMINISTRAZIO-EGINTZA EDO EBAZPENAREN JASOTZE-DATA EGIAZTATZEA.

→ Etxe-zerbitzuko langileak:

Aseguratuaren etxe-zerbitzuko langileek egiten dizkieten erreklamazioetan Aseguratuaren interesak defendatzea, baldin eta langile horiek Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda badaude.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Adibidea

- Bizilagunak kozinatzen duen bakoitzean usainak sartzen zaizkizu etxebizitzan.
- Zure enpresak lan-kontratua aldatu dizu, eta demandatzea erabaki duzu.
- Ogasunak aurkeztutako aitortpena okerra dela jakinarazi dizu, eta idazki bat aurkeztu nahi duzu aitortpenaren arrazoiak azaltzeko.
- Gure aseguratuek etxeko enplegatua kaleratu du, eta hark demandatu du, kaleratzea bidegabekotzat joz.

Ez dira estaltzen



- **Baldintza Partikularretan deklaraturako etxebizitzari dagozkion eskubideak:**
 - Bermea indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi diren gertaerak.
- **Laneko erreklamazioak:**
 - Bermea indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi diren gertaerak.
 - Aseguratuek, epai judizial irmoaren arabera, nahita eragindako gertaerak.

Adibidea

- Gizarte Segurantzaren erregimenean alta eman gabeko etxeko enplegatuek aseguraturua demandatu du.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA (Defentsa juridikoko aseguruia)

Errentatzailearen Defentsa Juridikoa

Estaltzen dira

Aseguratuaren eskubideen Defentsa eta Erreklamazioa -bide judizialek-, polizan deskribatutako etxebizitzan indarrean dagoen eta Hiri Errentamenduen Legearen arabera arautzen den ERRENTAMENDU-KONTRATUAREKIN zuzenean lotutako gatazketan. Era berean, ez ordaintzeagatik edo baimendu gabeko obregatik etxebizitza utzarazpeneko judizioak bermatzen dira, auzi-jartzailea Aseguratua bera baldin bada. Ordaindu gabeko errenten erreklamazioa ere bermatuta geratzen da, betiere zorduna ez badute kaudimengabetzat jotzen deklarazio judizial bidez.

Nolanahi ere, 300 eurotik beherako auziak ez dira estalita geldituko.

Adibidea

→ Maizterrak alokairu-kontratuan ezarritako errentak ordaintzeari utzi dio.

Ez dira estaltzen



- Energia nuklearrak, alterazio genetikoeak, erradiazio erradioaktiboek, hondamendi naturalek, gerrek, istiluek edota egintza terroristek, zuzenean edo zeharka, sortutako edozein ondorio.
- Jatorria greba, ugazaben itxiera, laneko gatazka kolektibo edo enplegu-erregulazioetan duten auziak edo haien ondoriozkoak direnak.
- Aseguratuak bere borondatez eragindako gertaerak edota haren aldetiko dolu edo erru larria egon den kasuak, epai irmo baten arabera.
- Jatorria arriskua kokatu den higiezinaren edo instalazioen proiektuan, eraikuntzan, eraldaketan edo eraisketan duten ezbeharrak edo arrazoi horiekin zerikusia dutenak, eta baita harrobiek, meategiek eta fabrika-instalazioek sortutakoak ere.
- Hirigintza, lurzati-biltze eta desjabetzearen arloko prozedura judizialak.
- Kontratu hau hutsaltzen edo azkentzen denetik bi urte igaro ondoren deklaritzen diren gertaerak edo bermea indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi direnak.

Adibidea

- Zure etxebizitzako maizterrak hitzartutako errentak ordaintzeari utzi dio, baina ez da errentamendu-kontraturik sinatu.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA

(Defentsa juridikoko aseguruia)

JARDUKETA-ARAUAK

Nola jokatu ezbeharraren gertatutakoan:



→ Aseguratuak lehenbailehen emango dio ezbeharraren berri Aseguru Etxeari. Estaldura honek babesten duen ezbeharraren onartuta, Seguros Lagun Aro, S.A.k adiskidetasun bidez erreklamatu die hirugarren erantzuleei Aseguratuaren izenean, gure Aseguratuaren eskaerak edo eskubideak aitortzen dituen transakzio bidezko konponbidea lortzeko.

→ Adiskidetasun-bideak edo judizioz kanpoko bideak aseguruak onartutako emaitza positiborik eskainiko ez balu, bide judizialek izapidetuko litzateke, baldin eta interesatuak eskatuko balu eta behar adinako lege-oinarria balego haren eskaerak aurrera egiteko.

→ Kasu horretan, dagokion auzian ordezkatu eta defendatuko duten profesionalak askatasunez aukeratzeko duen eskubidearen berri emango dio Seguros Lagun Aro S. A .k Aseguratuari.

→ Izendapena egin aurretik, hautatutako profesionalaren izena jakinaraziko dio Aseguratuak Aseguratzaileri, jaso izana ziurtatutako moduan.

→ Aseguratuak beharrezko jakinarazpena egin gabe askatasun hori baliatuko balu, Aseguratzaileren erantzukizunak 600 euroko muga izango du kontzeptu guztietarako, gastuen zenbatekoa handiagoa balitz ere.

→ Aseguratuak ez balu aurreikusitako abokatu-aukeratze hori egingo, Seguros Lagun Aro, S.A.k jarduera libreko profesional bat jarriko dio, Aseguratuaren adostasunarekin.

→ Aseguratuak libreki izendatutako abokatua eta, hala badagokio, prokuradorea, ez dira Seguros Lagun Aroren jarraibideen mende egongo beren eginkizuna egiteko garaian. Hala ere, egindako kudeaketaren berri eman beharko dute Aseguratzaileri ordainsariak eta ordejarriak aurkezten dizkionean, hartutako erabakiak arrazoituz, egindako tasazio, peritazio, ikerketa pribatuko edo bestelako txosten, demanda, salaketa edo errekurso-aurkezteen egokitasunari dagokionez; eskakizun hau nahitaezkoa baita beren zeregin profesionala eta, ondorioz, ordainsariak justifikatzeko.

→ Alderdien artean interes-gatazkarik sortuz gero, Seguros Lagun Arok horren berri emango dio Aseguratuari, aseguruak erabaki ahal izan dezan bere interesak defendatzeko egoki deritzan abokatua edo prokuradorea izendatzea, atal honetan aitortzen den aukeratze-askatasunaren arabera

Ordainsarien ordainketa:



- Aseguratuak izendatutako profesionalen ordainsariak Aseguru Etxearen kontura izango dira, dagokion Elkargo Profesionalak ezarritako ordainsari orientagarrien taulan zehaztutako mugara arte. Ordainsarien kalkuluan, jurisdikzioa edozein dela ere, eskalak aplikatzeko oinarria epai irmo bidez benetan lortu edo onartutako zenbatekoa edo kopurua izango da, eta ez eskatutakoaren zenbatekoa.
- Edozein kasutan, Aseguru Etxearen kargurako gehieneko muga polizaren Baldintza Partikularretan hitzartutakoa izango da.
- Aseguratuak hala aukeratuta ezbeharrean abokatu batek baino gehiagok esku hartzen badute, Aseguratzailleak Aseguratuaren interesak oso-osorik defendatzeko abokatu horietako bakar baten esku-hartzeari dagokion ordainsaria ordainduko dio gehienez, betiere, aurrez aipatutako ordainsarien arauetara jarraiki.
- Prokuradorearen eskubideak, haren esku-hartzea nahitaezkoa denean, mugazerga edo baremoaren arabera ordainduko dira.
- Aseguru Etxeak ez ditu bere gain hartuko letradura Elkargoan sartzeko edo gaitzeko gastuak ere, jarduera profesionala egin behar duen lekuko Elkargokoa ez denean, eta ezta bidaia-, ostatu- eta dieta-gastuak ere.
- Aseguratuak aukeratutako abokatua edo prokuradorea ez bada bizi prozedura bideratu behar den barruti judizialean, aseguratutako ordaindu beharko ditu profesionalak joan-etorriengatik fakturan sartzen dituen gastuak eta ordainsariak.

ZERBITZUAK JASOTZEKO ESKAERA

- Seguros Lagun Aro S.A.k eskainiko du Defentsa Juridikoaren, Kontsumitzailearen defentsa juridikoaren, Errentatzailearen Defentsa Juridikoaren eta Defentsa juridiko zabalduaren bermeetatik eratorritako zerbitzu-prestazioa.
- Seguros Lagun Aro S.A.ko abokatuek eskainiko dute orientazio juridikoaren zerbitzutik eratorritako prestazioa, eta telefono bidez eskatu beharko da, 944 94 74 28 telefonoan, urteko egun guztietan, eguneko 24 orduetan. Deia egitean, hau adierazi: aseguratutakoaren izena, aseguru-polizaren zenbakia, helbidea, telefono-zenbakia eta zein motatako zerbitzu eskatu nahi den.

Seguros Lagun Aro S.A.k konpromisoa hartzen du Aseguratuarekin 48 lanorduko epean harremanetan jartzeko.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA

(Defentsa juridikoko aseguru)

Desadostasuna ezbehar bat izapidetzean:



Seguros Lagun Arok, auzia irabazteko aukera handirik ez dagoela iruditzen zaiolako, uste badu auzitara jotzea edo errekurso bat izapidetzea ez dela bidezkoa, Aseguratuari jakinarazi beharko dio.

Desadostasuna baldin badago, alderdiek jo dezakete estaldura honetan aurreikusitako arbitrajera.

Aseguratuak eskubidea izango du, itundutako estalduraren mugen barruan, Aseguru Etxearekin, edo Arbitrajearekin berarekin, adostu gabeko auzietan eta izapidetutako errekursoetan sortutako gastuak berreskuratzeko, baldin eta bere kontura Aseguru Etxeak proposatutakoa baino emaitza onuragarriagoa lortzen badu.

Transakzioak:



Aseguratuak izapidetzen ari diren gaiak onar ditzake, baina horrek Aseguru Etxearen kargurako betebeharrak edo ordainketak sortzen baditu, biek beti aurrez elkarrekin adostuta jokatu beharko dute.

Aseguratzailleak ez ditu bere gain hartuko Aseguratuak egindako gaien transakzioetik eratorritako betebeharrak edo ordainketak, Aseguratzaillearekin aurrez hala hitzartu ezean, transakzioaren beharrari edo komenigarritasunari buruz.

Arbitrajea:



Aseguratuak eskubidea izango du beraren eta Seguros Lagun Aro S.A. ren artean estaldura honi buruz sor daitekeen edozein desadostasun arbitrajepean jartzeko.

Arbitroen izendapena ezingo da egin harik eta eztabaida sortu arte.

Alderdietako edozeinek bere akzioak Organismo Juridikoen aurrean gauzatzea erabakitzen badu, Aseguratuaren bizilekuari dagokion epailearengana jo beharko da, eskumena duen bakarra baita, legeak hala aginduta.



ASISTENTZIA PLUS

Estaltzen dira

Bermea espresuki kontratatua dagoenean Baldintza Partikularretan, Seguros Lagun Arok zerbitzu hauek bermatzen ditu, **betiere Polizaren estalduretan estalita ez dagoen kalteren bat gertatu bada etxebizitza aseguratuan, eta ezarritako muga eta baldintzetan.**

- Sartuko dira, halaber, bertaratu diren profesionalen desplazamenduen kostuak eta haien esku-lanaren lehenengo hiru orduak, konponketarako beharrezkoak badira, matxura izan duen ondasuna tailerrera eramateko kostuak eta gero etxera eramatearenak.

Estaldura-denbora profesionala aseguratutako etxebizitzan sartzen den unetik aurrera hasiko da zenbatzen.

- Seguros Lagun Arok sei hilabetez bermatzen ditu baldintza hauen babespean emandako zerbitzuak, etxetresna elektrikoak, ikus-entzunezko tresnen eta aire girotuko ekipoen kasuetan izan ezik. Horiek hiru hilabetez bermatuko ditu.

- Aseguratuaren kontura izango da erabilitako materialaren kostua eta, hala behar izanez gero, konponketak eskatzen duen esku-lanaren denbora gehigarria.

- Edonola ere, nahitaezko baldintza izango da gremioen esku-hartzerako, instalazioaren egoerak konponketa egiteko aukera eskaintzea eta konponketaren kostua bera ez izatea kaltetutako edo matxuratutako ondasunen balioarena baino handiagoa.

- Ez dira inola ere bermatuko Aseguratzailleak espresuki baimendu ez dituen profesionalak egindako zerbitzuen ordainketa.

- Zerbitzua ematea ez da larrialdizat joko.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Bermeak barne hartutako zerbitzuak hauek dira:

→ ITURGINTZA:

Aseguratutako etxebizitzaren ur-hoditeria partikularretan polizaren gainerako estaldurek estaltzen ez duten matxura bat gertatzen denean, Aseguratzailleak iturgintza-profesional bat bidaliko du matxura hori konpon dezan.

→ IGETSEROTZA:

Polizaren gainerako estaldurek babesten ez duten kalte baten ondorioz igeltserotzalanen bat egin behar bada, Seguros Lagun Arok igeltserotza-profesional bat

bidaliko du beharrezko diren konponketak egiteko, **aseguratutako Edukizaillearen barnealdean.**

→ **SARRAILAGINTZA:**

Etxebizitzaren kanpoaldetik sartu ezin denean edo Edukizaillea osatzen duten ateetako sarrailen ohiko funtzionamendua eragozten duten matxurak gertatzen direnean, bai eta urruneko agintea erabiltzen duten sarrailetan edo ixteko mekanismoetan, Seguros Lagun Arok sarrailagintza-profesional bat bidaliko du beharrezko diren konponketak egiteko eta/edo atea zabaltzeko.

→ **GALDARAK ETA BEROGAILUAK:**

Polizaren gainerako bermeek estaltzen ez duten matxuraren bat gertatuz gero aseguratutako etxebizitzaren eta Aseguratuaren erabilera soilerako diren galdaretan edo berogailuetan (gas zein gasoliokoak), Seguros Lagun Arok matxura hori konpontzeko profesionala bidaliko du.

→ **PERTSIANAK:**

Polizaren gainerako bermeek estaltzen ez duten matxuraren bat gertatuz gero aseguratutako etxebizitzaren bide finkoko pertsianetan, Aseguratzailleak pertsiana-profesional bat bidaliko du beharrezko diren konponketak egiteko eta pertsianaren ohiko erabilera bermatzeko.

→ **ELEKTRIZITATEA:**

Polizaren gainerako bermeek estaltzen ez duten matxuraren bat gertatuz gero elektrizitate-hornidura egiteko etxebizitzaren edukizaillean kokatuta dauden instalazio partikular finkoetan, Aseguru Etxeak elektrizitate-profesional bat bidaliko du beharrezko diren konponketak egiteko.

→ **ETXETRESNA ELEKTRIKOAK, IKUS-ENTZUNEZKO GAILUAK ETA AIRE GIROTUA:**

Polizaren gainerako bermeek estaltzen ez duten matxuraren bat gertatuz gero marka zuriko zein marroiko etxetresna elektrikoetan, bai eta aseguratutako etxebizitzan aseguratutako aire girotuetako ekipamenduan, Aseguratzailleak matxura hori konpontzeko profesionala bidaliko du.

Adibidea

- Gaizki doitutako komuneko txorrotak jariora du eta kalteak eragin ditu.
- 80 km/h-tik beherako haizeteen erruz, pertsiana mugitu da eta trabatuta gelditu da.

Ez dira estaltzen



→ **Iturgintza:** Instalazioen buxadurak libratzeko eta aldamioak muntatzeko ibilgailu espezializatuak behar diren konponketetarako esku-hartzeak.

Ez dira aseguratutako etxebizitzaren ondasuntzat joko erabilera edo jabetza komuneko eroanbideak edota hirugarren batzuenak, nahiz eta eremu berean egon.

→ **Igeltserotza:** Fatxadetan, teilatuetan edo etxebizitzaren kanpoaldeko elementuetan esku-hartzeak.

→ **Sarrailagintza:** Aseguratuaren erabilerarako soilik diren geletara sartzeko ateen sarrailak izango dute bakarrik estaldura, eta kanpo geldituko dira erabilera komunitarioko atari, garaje eta abarren ateetakoak.

→ **Etxetresna elektrikoen, galdarak, ikus-entzunezko gailuen eta aire girotuko gailuen** zerbitzua jasotzeko, 10 urtetik gorako antzintasuna duten gailuak.

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN LAGUNTZA (PIEZARIK GABE)

Estaltzen dira

Baldin eta Baldintza Partikularretan espresuki sartuta badago bermea:

- Polizan kontratatutako bermeek estaltzen ez dituzten kasuetan, Seguros Lagun Arok esku-lanaren lehen hiru orduak bere gain hartuko ditu, baita Aseguru Etxeak bidalitako profesionalaren desplazamendua ere, etxetresna hauek konpontzeko: garbigailua, lehorgailua, hozkailua, izozkailua, ontzi-garbigailua, labea, mikrouhin-labea, sukalde elektrikoa/bitrozeramika eta keak ateratzeko kanpaiak.
- Berme honen ondorioetarako ezbehartzat joko dira fabrikatzailearen jarraibideen arabera ekipoaeren okerreko funtzionamendua adierazten duten matxura elektrikoak/elektronikoak eta/edo matxura mekanikoak.
- Bermeak ez du Aseguratuari kalte-ordaina emateko edo osasun-gastuak itzultzeko izaera izango. Ez bada posible hondatutako pieza edo piezak birjartzea, Lagun Arok bidalitako konpontzaileak antzeko ezaugarriak dituen gailu bat eskainiko dio Aseguratuari.
- Zerbitzua polizaren Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzan eskainiko da, eta ez da Aseguratuaren jabetzakoak diren beste etxebizitza batzuetara zabalduko.
- Seguros Lagun Arok hiru hilabetez bermatzen ditu baldintza hauen babespean emandako zerbitzuak.

Bermeak gehienez ere 3 esku-hartze baimentzen ditu aseguruaren urtealdi bakoitzeko.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Adibidea

- Garbigailuaren motorra ez dabil barneko matxura mekaniko baten ondorioz.

Ez dira estaltzen

- Materialen eta piezen kostua.
- Aseguratuak bere gain hartuko du esku-lanaren denbora bermearen estalduraren hiru ordukoa gainditzen denean.
- 10 urtetik gorako etxetresna elektrikoak edo fabrikatzailearen bermearen barruan daudenak.
- Etxetresna elektrikoetako akats estetikoak, hala nola oxidazioa edo korrosioa.
- Etxetresna elektrikoetan eragindako kalteak eta haien jatorria kanpoko inpaktuetan (erorketak edo kolpeak) edota likidoen isurketetan dagoenean.

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN LAGUNTZA (PIEZEKIN)

Estaltzen dira

Baldin eta Baldintza Partikularretan espresuki sartuta badago bermea:

→ Polizan kontratatutako bermeek estaltzen ez dituzten kasuetan, Seguros Lagun Arok esku-lanaren lehen hiru orduak bere gain hartuko ditu eta Aseguru Etxeak bidalitako profesionalaren desplazamendua eta etxetresna hauek konpontzeko erabilitako piezak edo materialak ere: garbigailua, lehorgailua, hozkailua, izozkailua, ontzi-garbigailua, labea, mikrouhin-labea, sukalde elektrikoak/bitrozeramika eta keak ateratzeko kanpaiak.

→ Berme honen ondorioetarako ezbehartzat joko dira fabrikatzailearen jarraibideen arabera ekipoaren okerreko funtzionamendua adierazten duten matxura elektrikoak/elektronikoak eta/edo matxura mekanikoak.

→ **Bermeak ez du kalte-ordainik emango edo Aseguratuaren gasturik itzuliko**, kaltetutako pieza berriz ere ordeztu ezin den kasuetan izan ezik. Halakoetan, Seguros Lagun Arok ezbeharra izan duen ekipoaren pareko edo antzeko ezaugarriak dituen bat ordezteko aukera eskainiko dio Aseguratuari ekipoaren kostua bere gain hartuz, baina kaltea jasan duen piezaren zenbatekoa Aseguratzaileak hartuko du bere gain.

→ Zerbitzua polizaren Baldintza Partikularretan adierazitako etxebizitzan eskainiko da, eta ez da Aseguratuaren jabetzakoak diren beste etxebizitza batzuetara zabalduko.

→ Seguros Lagun Arok hiru hilabetez bermatzen ditu baldintza hauen babespean emandako zerbitzuak.

Bermeak gehienez ere 3 esku-hartze baimentzen ditu aseguruaren urtealdi bakoitzeko.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Adibidea

→ Barneko zirkuitulabur batek matxura eragin dio garbigailuari eta ez da pizten.



Ez dira estaltzen

→ Aseguratuak bere gain hartuko du esku-lanaren denbora bermearen estalduraren hiru ordukoa gainditzen denean.

→ Etxetresna elektrikoentzat eskaintzen den zerbitzua, berritako balioa ezbeharrak gertatu aurreko unean konponketarena baino txikiagoa bada edo konponketa hori 350 eurotik gorakoa bada.

** Bermean aseguratutako aparatuek jasaten dituzten kalteak berritako balioaren arabera baloratuko dira, modelo bera oinarri hartuta, ezbeharrak hondatutako objektuaren modeloa merkatuan badago (markak deskatalogatu gabe), edo horren ezean, ezaugarri eta funtzio berberak dituen bat.

→ 10 urtetik gorako etxetresna elektrikoak edo fabrikatzailearen bermearen barruan daudenak.

→ Etxetresna elektrikoetako akats estetikoak, hala nola oxidazioa edo korrosioa.

→ Etxetresna elektrikoetan eragindako kalteak eta haien jatorria kanpoko inpaktuetan (erorketak edo kolpeak) edota likidoen isurketetan dagoenean.

ETXEKO LAGUNTZA

Estaldura-eremua

Berme hau zure LAGUN ARO ETXEA polizaren osagarria da, eta Poliza horretako Baldintza Orokorretan eta Partikularretan adierazitako xedapen guztiak aplikatu behar dira, baldin eta poliza honetan xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

Bermeak zerbitzu hauek hartzen ditu barnean:

1. Urgentziazko zerbitzu bereziak: Berme honen 2. puntuaz azaldutako urgentziazko konponketa-zerbitzuen prestazioa emateko laguntza-sare bat Aseguratuaren eskura jartzea da. Urgentziazko konponketatzat hartuko da kalte gehiago ekiditeko behar-beharrezkoa dena, eta arazoa behin-behinean konpontzen duena.

2. Laguntza-zerbitzuak: Aseguratuaren eskura zerbitzu profesionalak eskaintzeko laguntza-sare bat jartzea da.

3. Beste zerbitzu batzuk

1. URGENTZIAZKO ZERBITZU BEREZIAK

Aseguratuak hala behar izanez gero, LAGUN AROk laguntza-zerbitzu bat jarriko dio eskura, atal honetan zehazten diren baldintzekin, ondoren deskribatzen diren urgentziazko konponketarako zerbitzuak emateko.

Zerbitzu horiek barnean hartuko dute kalte gehiago ekiditeko behar-beharrezkoa den urgentziazko konponketa, eta arazoa behin-behinean konpontzen duena.

Ez da inola ere izango itzulketa-estaldura. Aseguru Etxeak ez du zerbitzuaren kostua ordainduko, Aseguratuaren eskura LAGUN AROk jarritako laguntza-sareak eskaini ez badu, eta ondoren azaltzen diren baldintzen arabera eskatu ez bada.

1.1 BARNEAN SARTZEN DIREN ZERBITZUAK:

PRESAKO SARRILAGINTZA

Aseguratuak istripuzko edozein gertaerarengatik aseguraturako etxebizitzara ezin denean sartu edo ezin denean bertatik atera, esate baterako, giltzak galtzeagatik edo lapurtzeagatik edo sarraila erabilezin dagoelako lapurreta-saiakera baten ondorioz edo sarraila irekitzea galarazten duen beste kausa batengatik, LAGUN AROk sarrailagilea bidaliko du, ahalik eta lasterren, etxebizitza itxi eta ireki ahal izateko behar den urgentziazko konponketa egiteko.

LAGUN AROren kargura izango dira sarrailagilearen desplazamenduko gastuak eta atea irekitzeko eskulanarenak, baina ez sarraila, giltzak eta ixteko beste elementu batzuk birjartzeko edo konpontzeko gastuak.

Zerbitzua urgentziaz eskainiko da polizaren baldintza partikularretan espresuki zehaztutako egonleku eta eraikinetan, izaera pribatibokoak eta aseguratuarentzako sarbide eskusibokoak direnean.

URGENTZIAZKO ELEKTRIZITATEA

Aseguratuaren ohiko etxebizitzaren instalazio partikularretan izandako matxuraren ondorioz etxebizitza osoa edo bere zatiren bat energia elektrikorik gabe geratzen bada, LAGUN AROK profesional bat bidaliko du ahalik eta azkarren, argindarraren hornidura berrezartzeko behar den urgentziazko konponketa egiteko, betiere, instalazioaren egoerak horretarako aukera ematen badu. Urgentziazko konponketa horren desplazamenduko eta eskulanaren gastuak

(3 ordu gehienez) doan izango dira Aseguratuarentzat, eta berak materialen kostua ordaindu beharko du, halakoak erabiltzea beharrezkoa balitz.

Kasu guztietan, zerbitzua etxebizitzan edo gelan argia uztean datza; argindarra etetea eragin duen instalazio elektrikoa egokitzeko edo konpontzeko beharrezko konponketak bezzeroaren kargura joango dira, polizan estalitako ezbehar bat jatorrian egon ezean.

Berme honetatik kanpo geratzen dira:



- Zenbait mekanismok, esaterako, entxufeeek, eroaleek, etengailuek... izaten dituzten matxurak konpontzea.
- Argiztapen-elementuek, esaterako, lanparek, bonbillek, fluoreszenteek... izaten dituzten matxurak konpontzea.
- Berokuntza-aparatuek, etxetresna elektrikoek eta, oro har, energia elektrikoarekin funtzionatzen duen edozein aparatuk izandako matxurak konpontzea.

URGENTZIAZKO ITURGINTZA

Aseguratutako etxebizitzako ur-instalazioak hausteagatik edo matxuratzeagatik ur-isuria gertatuz gero, LAGUN AROK ahalik eta azkarren profesional bat bidaliko du ur-isurketa geldiarazteko, betiere, instalazioaren egoerak horretarako aukera ematen badu. Urgentziazko konponketa horren desplazamenduaren eta eskulanaren kostuak (gehienez 3 orduri dagozkionak) doakoak izango dira aseguruarentzat. Materialik erabili behar izanez gero, horien kostua soilik ordaindu beharko du aseguruak, polizak horiek ere estaltzen dituen kasuetan izan ezik.

Berme honetatik kanpo geratzen dira:



- Txorrotak, ixteko giltzak, elementu edo aparatu sanitarioak eta horien osagarriak, galdarak, berogailuak, metagailuak, erradiadoreak, aire girotua eta, oro har, instalazio finkoei eta etxetresna elektrikoek lotutako edozein aparatu edo elementu konpondu edo doitzea.

URGENTZIAZKO BEIRAGINTZA

Kanpoaldeko itxiturako beira bat hausteagatik etxebizitza aseguratua babesik gabe utziz gero, LAGUN AROK ahalik eta azkarren profesional bat bidaliko du etxebizitza bere babes-egoerara itzultzeko behar den urgentziazko konponketa egiteko, betiere, instalazioaren egoerak horretarako aukera ematen badu. Urgentziazko konponketa horren desplazamenduko eta eskulanaren gastuak

(3 ordu gehienez) doan izango dira Aseguratuarentzat, eta berak materialen kostua ordaindu beharko du, halakoak erabiltzea beharrezkoa balitz, polizan estalitako kasuetan izan ezik.

1.2 ZERBITZURAKO ETA ZERBITZUAREN BALDINTZETARAKO SARBIDEA:

ZERBITZUAREN ESKAERA

Zerbitzua LAGUN AROK bere Aseguratuen eskura jartzen duen 944 94 74 28 telefonoan eskatu beharko da, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, igandeak eta jaiegunak barne.

Deia egitean, behar den laguntza-mota zehaztuko da.

ZERBITZU-KONPROMISOAK

→ LAGUN AROK konpromisoa hartzen du laguntza-sare bat antolatzeko eta mantentzeko, azaldutako zerbitzuak ematea bermatzen duena.

→ LAGUN AROK zerbitzu-mota bakoitzean azaldutako kostuak bere gain hartuko ditu.

→ LAGUN AROK sei hilabetez bermatzen ditu baldintza hauen babespean egindako lanak.

→ LAGUN AROK konpromisoa hartzen du zerbitzua 3 orduko epean emateko, kausa justifikatua izan ezik. Zerbitzua epe horretan eman ezingo balitz, LAGUN AROK konpromisoa hartzen du Aseguratuari jakinarazteko, eta zerbitzuak emango diren epearen berri emateko.

2. LAGUNTZA-ZERBITZUAK

Aseguratuak behar duen guztietan, LAGUN AROK profesional kalifikatua bidaliko du honako hauen artean dauden zerbitzuak emateko:



Iturgintza.
 Elektrizitatea.
 Beiragintza.
 Arotzeria.
 Sarrailagintza.
 Etxetresna elektrikoak.
 Telebistak eta DVDak.
 Antenistak.
 Atezain automatikoak.
 Igeltserotza.
 Pintura.
 Pertsianak.
 Eskaiolista.
 Moketa-jartzaileak.
 Parket-jartzaileak.
 Arotzeria metalikoa.
 Tapizeria.
 Bernizatzzaileak.
 Kristal-garbitzaileak.
 Kontratistak.
 Garbiketa orokorrak.

Edonola ere, LAGUN AROK bere gain hartuko du bidalitako profesionalak aseguratutako etxebizitzaraino egiten duen desplazamendua. Prestazioak bete ahal izateko sortzen den beste edozein gastu aseguruaren kontura izango da, polizak estalitako ezbehar baten ondoriozko zerbitzuen kasuan izan ezik.

2.1 ZERBITZURAKO SARBIDEA ETA ZERBITZUAREN BALDINTZAK:

ZERBITZUAREN ESKAERA

Zerbitzua LAGUN AROK bere Aseguratuaren eskura jartzen duen 944 94 74 28 telefonoan eskatu behar da, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, igandeak eta jaiegunak barne. Deia egitean, behar den laguntza-mota zehaztuko da.

ZERBITZU-KONPROMISOAK

- LAGUN AROK konpromisoa hartzen du laguntza-sare bat antolatzeko eta mantentzeko, azaldutako zerbitzuak ematea bermatzen duena.
- LAGUN AROK bere gain hartzen du profesionalak Aseguratuaren bizilekura egindako lehen desplazamendua (irteera-kostua edo profesionala eskueran jartzea).
- LAGUN AROK sei hilabetez bermatzen ditu baldintza hauen babespean egindako lanak.
- LAGUN AROK konpromisoa hartzen du zerbitzuei eskatu diren egunean bertan erantzuteko, baldin eta laneguna bada eta zerbitzuak 18:00ak baino lehen eskatu badira.
- LAGUN AROK konpromisoa hartzen du 3 orduko epean Aseguratuak Urgentziazko zerbitzu gisa eskatutako zerbitzuei erantzuteko, eta profesionalak fakturatuko ditu zerbitzu horiek, dagokien osagarriarekin (osagarriaren prezioaren berri emango zaio Aseguratuari zerbitzua eman aurretik).

ZERBITZUEN ETA TARIFEN ORDAINKETA

Aseguratuak eskatutako esku-hartzeari dagozkion fakturak ordaindu beharko ditu, polizak estalitako ezbeharrak ez bada.

Zerbitzuaren tarifak normalean merkatuan halako zerbitzuengatik fakturatzen denari egokituko zaizkio, eta kontzeptu hauek aplikatuko dira:

- Irteera edo eskueran jartzea: Doan Aseguratuarentzat.
- Materialak: Aseguratuaren kargura.
- Eskulana:
 - Gutxieneko fakturazioa: 1 ordu.
 - Hurrengo 1/2 orduaren frakzioa.

Zerbitzua fakturagarria izango da LAGUN AROK bidalitako profesionalak desmuntaketa-lanen bat edo diagnostiko-probak egiten baditu matxuren kasuan, proba horietatik matxura konpontzea lortzen ez bada ere.

Aurrekontuen prestaketa: aurrekontuak prestatzea doan izango da, profesionalak horretarako lanak egin behar ez baditu (esaterako, etxetresna elektrikoak desmuntatzea edo haien diagnostiko-probak egitea).

BESTE ZERBITZU BATZUK

JATETXEA

Polizaren oinarritzko bermeez estalitako ezbehar baten ondorioz etxebizitzako sukaldea erabiltzea ezinezkoa bada, Lagun Arok bere gain hartuko ditu jatetxean sortzen diren gastu justifikatuak, Baldintza Partikularretan jasotako mugaraino.

Aipatutako gastuak dokumentu bidez justifikatu beharko dira.

Berme hau bateraezina izango da bertan bizitzeko ezintasunarekin.

Berme honetatik kanpo geratzen dira:



→ Polizan estalitako ezbehar baten ondorioz elementu indibidualak kaltetuta geratzen badira, elementu indibidual horiek gabe etxebizitzan janariak normal prestatzea ezinezkoa bada (bitrozeramika, mikrouhin-labea, etab.).

IKUZTEGIA

Polizaren oinarritzko bermeez estalitako ezbehar baten ondorioz aseguratutako etxebizitzako garbigailua erabiltzea ezinezkoa balitz, Lagun Arok bere gain hartuko ditu ikuztegi-gastu justifikatuak, Baldintza Partikularretan jasotako mugaraino.

Aipatutako gastuak dokumentu bidez justifikatu beharko dira.

Berme hau bateraezina izango da bertan bizitzeko ezintasunarekin.

ESKU-TREBEA ZERBITZUA

Baldin eta baldintza partikularretan espresuki sartuta badago:

Estaltzen dira


LAGUN AROk eskatutako zerbitzuei erantzuteko pertsonala bidaltzea erraztuko dizu, kasu hauetan:

- Gortinak, koadroak, arropa esekitzekoak, bainugelako osagarriak, ispiluak, kakotegiak eta armairu-barrak esekitzea.
- Dutxa-telefonoaren euskarria jarri eta konexioa egitea, apal solteak, apalategiak eta, instalazio elektrikoak aldatu behar izan gabe, termofluidoak jartzea eta akaberako pletinak, bi zoru desberdinen arteko juntura-estalkiak eta paretaren izkinako babesgarria jartzea.
- Leihoak isolatzea: Beiraren eta markoaren artean burleta jartzea eta beira silikonarekin finkatzea.
- Mekanismorik gabeko pertsiana biribilgarriak eta kutxan ezkutatu gabekoak konpondu edo jartzea.
- Barruko zurezko ateetan pieza hauek aldatu edo jartzea: heldulekuak, maratilak, eskulekuak, malgukiak eta kisketa txikiak.
- Sukalde, bainugela eta zurezko osagarrietako altzarien ate txikietan bisagrak aldatzea.
- Kit-motako altzariak muntatzea.
- Zurezko aulki, mahai eta oheak kolatzea.
- Entxufe eta etengailuetako edergarriak, bonbillak, neonezko hodiak, fluoreszenteak eta pitzarazgailuak jarri edo aldatzea.
- Lanparak, aplikeak edo plafoiak jartzea, kableatua aldatu beharrik ez baldin badago.
- Askatutako txorrotak doitzea eta haien zapatak aldatzea, baldin badauzka.
- Erradiadoreak purgatzea.
- Bainuontzi, dutxa, konketa eta harraskak silikonarekin zigilatzea.
- Azuleju-estaldurarik gabeko hormetako zulo txikiak estaltzea.

Hilabete bateko gabealdia ezartzen da poliza honetan definitutako zerbitzuak emateko kontratatzen den unetik aurrera.

Berme honetatik kanpo geratzen dira:

- Estalduran azaldutako lanez beste edozein motatako lan.



EZOHIKO ARRISKUAK

ONDASUNETAN ETA LURREKO IBILGAILU AUTOMOBILETAKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO KALTEEN ASEGUUETAN ESPAINIAN IZANDAKO EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALEREN KALTE-ORDAINAK ASEGUUEN KONPENTSASIO PARTZUERGOAK EMATEKO KLAUSULA.

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoarekin bat, enpresa-erakunde publiko horren aldeko errekargua nahitaez gaineratu behar duen aseguru-kontratu baten aseguru-hartzaileak edozein erakunde aseguratzailerekin hitzartu ahal izango du ezohiko arriskuen estaldura, baldin eta erakunde aseguratzaille horrek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Espainian gertatu diren eta bertan kokatutako arriskueta eragina duten ezohiko gertakariak sortutako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu. Haatik, aseguru-hartzaileek Partzuergoaren aldeko errekarguak ordainduta eduki beharko dituzte eta ondorengo egoeraren batean egon beharko dute:

- a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezohiko arriskua erakunde aseguratzailerekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.
- b) Aipatutako aseguru-poliza horrek babestua egonik ere, Erakunde Aseguratzailleak ezin izatea bere betebeharrak bete, judizialki konkurtsoan dagoela deklaratu izan delako, edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio-prozedura batean dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jarduna egokituko du, aipatu Legezko Estatutuan, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan -otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitakoan- eta xedapen osagarrietan zehaztutakora moldatzeko.

EZOHIKO ARRISKUAK

I. Lege-Arauen Laburpena

1. ESTALITAKO EZOHIKO GERTAERAK:

Ezohiko gertakaritzat hartzen dira:

- Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas enbatek sortutakoak barne), sumendien erupzioak, ezohiko ekaitz ziklonikoa (barnean hartuz 120 km/h-tik gorako ezohiko haize-boladak eta tornadoak) eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.
- Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilak direla-eta bortxaz eragindakoak.
- Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioenak eta gorputz sideralak erortzea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren instantziaz ziurtatuko dira, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gai horretan eskudunak diren gainerako erakunde publikoek egindako txostenen bidez. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, edo Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertakariei buruzko informazioa bildu ahal izango du jurisdikzio-eta administrazio-organo eskudunetatik.

2. KANPOAN UTZITAKO ARRISKUAK

- Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik eragiten ez dutenak.
- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren aldeko errekarua nahitaezkoa ez duen aseguru-kontratu baten bidez aseguratuta dauden ondasunetan sortutakoak.
- Aseguratutako gauzaren berezko akatsaren edo mantentze-falta nabarmenaren ondoriozkoak.
- Gatazka armatuek eragindakoak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- Energia nuklearretik eratorriak, kalte nuklearrei edo material erradioaktiboengatik sortutakoei buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe. Hori horrela izanik ere, barnean sartuko dira aseguratutako instalazio nuklear batean sortutako zuzeneko kalteak, baldin eta instalazioari berari eragiten dion ezohiko gertaera baten ondorio badira.

f) Denboraren iragateak berak sortutakoak, eta etengabe, guztiz edo partzialki urpean dauden ondasunak direnean, olatuen edo ohiko korronteen eraginak berak sortutakoak.

g) Aurreko 1. a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sorturikoak, eta, bereziki, maila freatikoaren igoerak, malda-higidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erortzeak eta antzeko fenomenoek sorturikoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertaturikoak, baldin eta ur horiek inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.

h) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, jarduera horiek aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ezohiko gertakaritzat hartzen direnean izan ezik.

i) Aseguratuak fede gaiztoz eragindakoak.

j) Naturako fenomenoek sortutako ezbeharrek ondasunei eragindako kalteak edo diruzko galerak, polizaren jaulkitze-data edo efektu-data -gerokoa bada- ez bada ezbeharra gertatu den datakoa baino zazpi egun natural lehenagokoa, ez bada demostratuta geratzen, behintzat, asegurua ezin izan zela lehenago kontratatu interes aseguragarririk ez zegoelako. Gabealdi hau ez da aplikatuko polizaren birjarpena edo ordezipena gertatzen den kasuetan, erakunde berean edo beste batean, jarraipenaren konponketarik gabe, estaldura zabaltzeko edo estaldura berri bat egiteko zatian ez bada. Ez da aplikatuko ezta ere polizan aurreikusitako errealizazio automatikotik sortutako kapital aseguratuaren zatirako.

k) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoaren arabera, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo asegurua azkenduta dagoenean primak ez direlako ordaindu.

l) Zeharkakoak edo zuzeneko nahiz zeharkako kalteetatik eratorritako galerak, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan zehaztutako mozkingaltzeak izan ezik. Bereziki, ez dira estaldura honetan sartzen energia elektriko, gas erregai, fuel-olio, gasolio edo bestelako fluidoek kanpo-horniduran etenak edo aldaketak gertatzeagatik sortutako kalteak edo galerak, ezta aurreko paragrafoan zehaztutakoak bestelako edozein zeharkako kalte edo galera ere, ezohiko arriskuen estalduran sartuta dagoen kausa batek sortutakoak izan arren.

m) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuako Gobernuak katastrofe edo hondamen nazional gisa kalifikatzen dituenak.

3. FRANKIZIAK

Frankizia aseguruaren kargurakoa izango da:

a) Zuzeneko kalteetan, kalteen aurkako aseguruetan, ezbeharrak sortu dituen ordaindu beharreko kalteen % zazpia izango da aseguruaren kargurako frankizia. Hala ere, ez zaie etxebizitzetara eragiten dieten kalteen frankiziagatik murrizketarik egingo etxebizitzetara jabeen komunitateei ezta ibilgailuen aseguruak polizak aseguratutako ibilgailuei.

b) Mozkin-galeraren kasuan, ohiko ezbeharren ondorioz izandako mozkin-galtzetarako polizan aurreikusita dagoen frankizia (denbora edo zenbatekoa) bera izango da aseguruaren kargurako frankizia. Mozkin-galerako ohiko ezbeharrak estaltzeko hainbat frankizia badaude, estaldura nagusirako aurreikusitakoak aplikatuko dira.

c) Poliza batean ezartzen bada frankizia konbinatua kalteetarako eta mozkin-galereetarako, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak likidatuko ditu kalte materialak aurreko a) atalean aurreikusitakoak aplikatuz dagokion frankiziaren murrizketarekin, eta gertatutako mozkin-galera likidatuko du estaldura nagusirako polizan ezarritako frankiziaren murrizketarekin, kalte materialetako likidazioan aplikatutako frankizia kenduta.

4. ESTALDURAREN HEDADURA:

1. Aseguru-polizetan ohiko arriskuen estaldurarako zehazten diren pertsona eta zenbateko aseguru berberak estaliko ditu ezohiko arriskuen estaldurak.

2. Hori horrela izanik ere:

a) Ibilgailu motordunen kalte propioak estaltzen dituzten polizetan, interes aseguru osoa bermatuko du Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak, poliza arruntak partzialki bakarrik babestu arren.

b) Ibilgailuek lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko poliza bat bakarrik daukatenean, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak bermatuko du ibilgailuaren balioa ezbeharra gertatu aurreko unean ibilgailuak zuen egoera kontuan hartuta, merkatuan onartutako erosketa orokorreko prezioen arabera.

KALTEEN BERRI EMATEA ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI

1. Estalduraz Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion kalte-ordainen eskaera Partzuergo horri zuzendutako komunikazio bidez egingo da. Komunikazio hori aseguru-hartzaileak, aseguratuak edo polizaren onuradunak egingo du, edo aurrekoen kontura eta izenean jarduten duenak, edo erakunde aseguratzailerak edo asegurua kudeatzeko esku hartu duen aseguru-bitartekariak.

2. Honela egin ahal izango da kalteen komunikazioa eta honela eskuratu ahal izango da prozedurari eta ezbeharren izapidetze-egoerari buruzko edozein informazio:

- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Telefono bidezko Arreta Zentrora deituz (952 367 042 edo 902 222 665).
- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren webgunearen bidez (www.consorseguros.es)

3. Kalteen balorazioa:

Aseguruen legeriaren eta aseguru-polizaren arabera kalte-ordaina dagokien kalteen balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta Partzuergoa ez da lotetsita egongo arrisku arruntak estaltzen dituen erakunde aseguratzailerak egindako balorazioekin, halakorik egonez gero.

4. Kalte-ordaina ematea:

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko dio kalte-ordaina aseguruaren onuradunari banku-transferentzia bidez.

EZOHIKO ARRISKUAK

Aseguruen konpentsazioko partzuergoaren kalte-ordaina dagokion ezbeharretan jarraitu beharreko prozedura

Ezbeharra gertatu dela jakin denetik zazpi eguneko epean eman behar dute ezbeharren berri aseguruak, aseguru-hartzaileak, onuradunak edota haien legezko ordezkariak, zuzenean edo Erakunde Aseguratzaillearen edo aseguru-bitartekariaren bidez, gertatu den lekuari dagokion Partzuergoaren eskualdeko ordezkartzan.

Jakinarazpena bide hauetako batetik egin ahal izango da:

Telefonoz, 902 222 665 telefonora deituta, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 18:00etara.

Online, web honen bidez (www.conorseguros.es). Aukera hau baliatzeko, ziurtagiri edo NAN elektronikoak behar dira.

Nolanahi ere, ezingo balitz kalte-ordaina eskatu telefonoz edo web honen bidez, Partzuergoaren eskualdeko ordezkartzara idatziz egin liteke, dagokion Kalteei buruzko komunikazioa betez eta aurrerago dagokion atalean zehaztutako dokumentazioa bidaliz.

Era berean, ezbeharren aztarnak eta hondarrak gorde beharko dira perituen lanerako, eta, hori erabat ezinezkoa balitz, kalteak frogatzeko dokumentazioa aurkeztu, adibidez argazkiak, notario-aktak, bideoak edo ziurtagiri ofizialak. Halaber, ezbeharra izan duten ondasunen fakturak gordeko dira, ondasun horiek suntsitzea gehiago atzeratu ezin denean.

Kalteak gutxitzeko behar diren neurri guztiak hartu beharko dira. Ezohiko gertakarien ondoriozko galeren balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta ez du nahitaez bat etorri beharko ohiko arriskuak estaltzen dituen aseguru-erakundeak egindako balorazioarekin, horrelakorik egin badu.

Jarraitu beharreko prozeduraren inguruan sor litezkeen zalantzak argitzeko, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak telefono hau dauka Aseguratuari arreta eskaintzeko: 902 222 665.

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN

Betebeharrak

Ezbehar bat gertatzen denean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak betebeharra izango dute:

Beren esku dauden baliabideak erabiltzeko, **ezbeharraren** ondorioak arintzeko. **Betebehar hau ez betetzeak eskubidea emango dio Aseguru Etxeari bere prestazioa murrizteko, egokia den proportzioan, kontuan hartuz zenbaterainokoak izan diren hortik sortutako kalteen garrantzia eta aseguratuaren errua.**

Ez betetze hori egingo balitz Aseguru Etxeari kalte egiteko edo iruzur egiteko asmo nabariz gertatu bada, Aseguru Etxeak ez du ezbeharraren ondoriozko prestazioa eman beharrik izango.

Aseguru Etxeari ezbeharra gertatu dela jakinarazteko horren berri izan eta gehienez ere zazpi eguneko epean, polizako Baldintza Partikularretan epe luzeagorik ezartzen ez baldin bada.

Betebehar hau betetzen ez bada, ezbeharra ez deklaratzegatik sortutako kalteak eta galerak erreklamatu ahal izango ditu Aseguru Etxeak, ezbeharraren berri beste bide batetik izan zuela frogatzen denean izan ezik.

Aseguru Etxeari era guztietako informazioa emateko, ezbeharraren zirkunstantzia eta ondorio guztiei buruz. **Informazioa emateko betebehar hau ez betetzeak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, dolua edo erru larria izan denean.**

Erantzukizun Zibilaren bermeak estalitako ezbeharretan Aseguru Etxeak horiekin erlazonatutako kudeaketa guztien zuzendaritza hartuko du, aseguratuaren izenean jokatzuz kaltetuekin, haien eskubidedunekin edo erreklamatzailerekin tratatzeko, eta **aseguratuak bere aldetik ahal duen guztian laguntzeko** konpromisoa hartuko du. **Laguntza hori ez emateagatik ezbeharraren defentsa egiteko aukerak murriztuko balira edo kalte egingo balitzaie, Aseguru Etxeak aseguratuari erreklamatu ahal izango dizkio kalte-galerak, aseguratuak izandako erruaren eta jasandako kaltearen proportzioan.**

Ezbeharraren hondakinak kontserbatzea kalteen likidazioa amaitu arte, materialki ezinezkoa dela justifikatzen denean izan ezik, nahiz eta horrek ez duen kalte-ordain berezirik ekarriko; arreta jartzea kalte edo desagertze gehiago izan ez dadin, horiek aseguratuaren kargurakoak izango bailirateke; eta, kontrako itunik ezean, aseguratuak gauzak ez abandonatzea, ez osorik eta ez zati batean ere.

Aseguratuari dagokio gauza horiek bazirela frogatzea. Hala ere, polizaren edukia bera aseguratuen aldeko presuntzioa izango da, arrazoi justifikatuengatik froga eraginkorragorik ezin denean aurkeztu.

NOLANAHI ERE, EZBEHARRARI DAGOKIONEZ EZINGO DUTE KALTETUTAKO BESTE HIRUGARREN BATEN ERREKLAMAZIORIK NEGOZIATU, EZ EZETSI EZTA ONARTU ERE, ASEGURU ETXEA ESPRESUKI HORRETARAKO BAIMENIK EMATEN EZ BADU, BEHINTZAT.

Ezbeharren deklarazioa

Aseguratuak edo Aseguru Hartzaileak gertakariaren ezagutza izandako egunetik kontatzen hasi eta 7 eguneko epean salatu behar du gertaera, BANDALISMO-EGINTZAK eta LAPURRETA, ESPOLIAZIOA eta EBASKETA ezbeharretan, polizia-agintari lokalen aurrean, Asegurua badagoela adieraziz, eta Aseguru Etxeari salaketaren kopia bat bidaliz.

Horrez gain, Aseguru Etxeari idatziz helarazi behar zaio, ezbeharren berri eman eta bost egun pasatu baino lehen, ezbeharra gertatu zenean zeuden gauzen zerrenda, salbatu direnena eta kalte edo galeren estimazioa.

Kalteen balorazioa

ASEGURUA EZIN DA IZAN ASEGURATUA ERA BIDEGABEAN ABERASTEKO BITARTEKOA. KAL TEA ZEHAZTEKO, ASEGURATUTAKO INTERESAK EZBEHARRA GERTATU AURREKO UNEAN ZUEN BALIOA HARTUKO DA KONTUAN.

→ Kalte-ordainaren muga

Zenbateko aseguruak Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten du.

Erantzukizun Zibileko estalduran, Baldintza Partikularretan adierazitako zenbateko aseguruak Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean gehienez emango duen kalte-ordaina adierazten du, gorputzeko kalteen edo kalte materialen edo galeren ordainen multzo osorako, edozein izanda ere ukitutako bermeen kopurua.

→ Erregela Proporzionala (infra-asegurua)

Ezbeharra gertatzen den unean zenbateko aseguratua interesaren balioa baino txikiagoa bada, zenbateko horrek aseguratutako interesa estaltzen duen proportzio berean emango du kaltearen ordaina Aseguru Etxeak.

Alderdiek, elkarrekin adostuta, polizatik kanpo utzi ahal izango dute, kontratua sinatzen den unean edo geroago, aurreko paragrafoan aurreikusitako erregela proporzionalaren aplikazioa.

→ Gainasegurua

Zenbateko aseguruak aseguratutako interesaren balioa nabarmen gaintitzen badu, alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du zenbatekoa eta prima murriztea, eta Aseguru Etxeak itzuli egin beharko du jasotako primen gehiegizkoa. Ezbeharra gertatzen bada, Aseguru Etxeak **benetan egindako kaltea ordainduko du. Gainasegurua aseguruaren fede gaiztoak eragindakoa denean, kontratua baliogabea izango da. Hala ere, Aseguru Etxeak, fede onez, atxiki ahal izango ditu mugaeguneratutako primak eta uneko epealdikoak.**

Adibidez:

Zure ondasunen balioa 72.000 €-koa bada, eta zuk 54.000 €-an aseguru badituzu, balio guztiaren % 75 da:

- Erabateko hondamena gertatzen bada, 54.000 € baino ez dituzu jasoko; gainerakoa -hau da, 18.000 €- zure kargu geratuko da.
- Kalteen zenbatekoa 7.200 €-koa bada, kalte-ordaina 5.400 €-koa izango da, hots, ezbeharraren % 75.

→ Edukiaren balorazioa

Ondasun-motaren arabera, Baldintza Orokor hauetan jasotako definizioei jarraiki, erregela hauek aplikatuko dira:

Altzariak (bitxiak, alajak, objektu artistiko edo historikoak, kristalak, beira-plakak eta ispiluak izan ezik). Altzariak antzeko motako, kalitateko eta gaitasun operatiboko altzari berrien birjartze-kostuaren arabera baloratuko dira, baldintza hauekin:

Kaltetutako ondasunen balorazioa, gehienez ere, bi zenbateko hauen arteko txikiena izango da: birjartzeko edo ordeztzeko kostuaren (egiten den egunean eta gehienez ere ezbeharrak gertatu denetik sei hilabete igaro aurretik duen kostuaren) eta konpontzeko kostuaren arteko txikiena. Aseguru Etxeak ez du inolako kalte-ordainik emango kostu-igoerarengatik, igoera hori ondasun kaltetuen konponketa, birjartzea edo berreraikitzea arautzen duen edozein ordenamendu edo legerengatik gertatu bada.

Ondasun kaltetua edo suntsitua Aseguratuarentzat erabilgarria ez bada edo bere **balio-galera berritako balioaren ehuneko 75 edo hortik gorakoa bada**, Aseguru Etxeak ondasun kaltetuen benetako balioarengatik kalte-ordaina emango du bakarrik, erabilera, antzinasuna, zaharkitzea eta kontserbazio-egoeragatik dagokion murrizketa deskontatuta.

Bitxiak eta alajak pisuaren arabera baloratuko dira, dagokion metalaren gramoko saltzaile-prezioa, Sociedad Española de Metales Preciosos (SEMPSA) edo antzeko erakunde batek finkatua, oinarri hartuta eta horri gehituta piezaren amaierako akabera lortzeko egindako egituratze, leunketa, txertatze eta antzeko lanei dagokien zenbatekoa. Objektu horiek perlas edo harribitxiz hornituak badira, perla edo harribitxi horiek merkatu espezializatuan duten prezioaren arabera baloratuko dira, duten antzinasuna, taillaketa, purutasuna, kolorea, tamaina eta balioan eragina izan lezaketen gainerako zirkunstantziak kontuan izanda.

Gauza artistiko edo historikoak, Baldintza Partikularretan balio zehatzik ezarri ez bada, dagokien arte-merkatu espezializatuaren arabera baloratuko dira.

Kontrako kasuan, Baldintza Partikularretan esleitutakoa erabiliko da, eta Aseguratzailak balio hori aurkaratu ahal izango du, onarpena dolu bidez eman bada edo erroreren baten ondorioz estimazioa askoz handiagoa bada ezbeharrak gertatzen den unean objektuak duen benetako balio erreala baino.

Objektuak bilduma edo multzoen osagai direnean, ezbeharrak kaltetutako pieza edo piezen kalte-ordaina bakarrik eman beharko du Aseguru Etxeak, bakoitzaren balioaren arabera, multzo osoak izandako balio-urritzea kontuan hartu gabe.

Beira-plakak, kristalak, ispiluak, marmolak, granitoak, plastikoak, metakrilatoak eta bitrozeramika, birjartze-kostuaren zenbatekoaren arabera baloratuko dira, zeuden lekuan jartzeko kostua gehituta.

→ Edukitzailearen balorazioa

Etxebizitza, zimenduen parte proportzionala barne, baina ez orubearen balioa, eta eraikinaren balorazioa antzeko motako, kalitateko eta gaitasun operatiboko beste batzuekin ordezteak duen kostuaren arabera egingo da, baldintza hauekin:

- Kaltetutako ondasunen balorazioa, gehienez ere, bi zenbaterako hauen arteko txikiena izango da: birjartzeko edo ordezteko kostuaren (egiten den egunean eta gehienez ere ezbeharrak gertatu denetik sei hilabete igaro aurretik duen kostuaren) eta konpontzeko kostuaren arteko txikiena. Aseguru Etxeak ez du inolako kalte-ordainik emango kostu-igoerarengatik, igoera hori ondasun kaltetuen konponketa, birjartzea edo berreraikitzea arautzen duen edozein ordenamendu edo legerengatik gertatu bada.

- Ondasun kaltetua edo suntsitua Aseguratuarentzat erabilgarria ez bada edo bere balio-galera berritako balioaren ehuneko 75 edo hortik gorakoa bada, Aseguru Etxeak ondasun kaltetuen benetako balioarengatik kalte-ordaina emango du bakarrik, erabilera, antzinatasa, zaharkitzea eta kontserbazio-egoeratik dagokion murrizketa deskontatuta.

Beira-plakak, kristalak, ispiluak, marmolak, granitoak, plastikoak, metakrilatoak eta bitrozeramika, birjartze-kostuaren zenbaterakoaren arabera baloratuko dira, zeuden lekuan jartzeko kostua gehituta.

Peritazioa eta arbitrajea

Aseguru Etxeak ahalik eta azkarren joan behar du ezbeharrak gertatu den lekura, bere perituaren edo ordezkariaren bidez, tasazio-lanak eta ezbeharraren kausa eta ondorioei buruzko egiaztapenak egiten hasteko.

Alderdiek edozein unetan kalte-ordainaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua adosten badituzte, Aseguru Etxeak adostutako zenbatekoa ordaindu beharko du, edo behar diren eragiketarik egingo ditu objektu aseguratua ordezteko, objektuaren izaerak hori egiteko aukera ematen duenean.

Ezbeharrak deklaratu eta ondorengo berrogei egunetan akordiorik lortzen ez bada, arau hauek aplikatuko dira:

Alderdi bakoitzak peritu bat izendatuko du, eta idatziz jaso beharko da haien onarpena. Alderdietako batek izendapenik ez badu egiten, zortzi eguneko epean egin beharko du bere peritua izendatu duen alderdiak errekerimendua egiten dion egunaren biharamunetik kontatuta, eta epe horretan ere egiten ez badu, beste alderdiaren perituaren irizpena onartzen duela ulertuko da, eta horri loturik geratuko da.

Perituak ados jarriko balira, baterako akta batean jasoko da, eta akta horretan adieraziko dira ezbeharraren kausak, kalteen balorazioa, kalte-ordaina finkatzeko orduan eragina duten gainerako zirkunstantziak eta kalte-ordainaren zenbateko likidoaren proposamena.

Perituen artean adostasunik ez dagoenean, bi alderdiek hirugarren peritu bat izendatuko dute, bien artean adostuta. Izendapen hori egiten ez badute, ondasunak dauden lekuko lehen auzialdiko epaileak egingo du, borondatezko jurisdikzioko egintzan eta Prozedura Zibilaren Legean perituen zozketa egiteko aurreikusitako izapideen bidez. Kasu horretan, perituaren irizpena alderdiek seinalatzen duten epean emango da, edo, horrelakorik ezean, hogeita hamar eguneko epearen barruan, hirugarren perituak bere izendapena onartzen duenetik kontaktzen hasita.

Perituen irizpena -ahobatezkoa edo gehiengo bidezkoa- berehala eta zalantzarik gabe jakinaraziko zaie alderdiei eta loteslea izango da horientzat, baldin eta alderdietako baten batek judizialki aurkaratzen ez badu, hogeita hamar eguneko epean Aseguru Etxearen kasuan eta ehun eta laurogei eguneko epean aseguruaren kasuan, biak jakinarazpen-datatik kontaktzen hasita. Epe horien barruan ez bada dagokion akziorik aurkezten, perituen txostena erasoezin bihurtuko da.

Perituen irizpena aurkaratzen bada, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du, berak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera, eta aurkaratzen ez bada, adituek esandako kalte-ordainaren zenbatekoa ordainduko du bost eguneko epean.

Alderdi bakoitzak bere perituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren perituaren gastuak eta peritu-tasazioak sor ditzakeen gainerako gastuak erdibana izango dira aseguruaren eta Aseguru Etxearen kontura eta kargura. Hala ere, alderdietako bat izan bada peritazioa egitera behartu duena, kaltearen balorazio guztiz neurrigabekoa egiteagatik, bera izango da gastu horien erantzule bakarra.

Aseguru Etxeak eta perituek eskubidea izango dute ezbeharrak izan den jabetzetan sartzeko, liburuak eta dokumentuak aztertzeko, eta Aseguru Etxeak bere interesak defendatzeko arrazoizkoak diren neurri guztiak hartu ahal izango ditu.

Kapitalen konpentsazioa

Espresuki hitzartuta geratzen da, polizako Baldintza Orokorrak aldatuz, ezbehar bat gertatzen den unean polizako artikulua batean edo gehiagotan aseguratutako kapitalak gehiegizkoak badira, gehiegizko kapital hori behar adina aseguru ez diren beste artikulua batzuei aplikatu ahal izango zaiela, baldin eta kapital-banaketa horrek dakarren primak indarrean dagoen urtaldian ordaindutako prima ez badu gainditzen.

Kalte-ordainen ordainketa

Ezbeharrak izan dela erabakitzeko eta, halakorik denean, gertatutako kalteen zenbatekoa zehazteko beharrezkoak diren ikerketak eta peritazioak bukatzen direnean, kalte-ordaina ordaintzeko betebeharrak izango du Aseguru Etxeak. Edozein kasutan, Aseguru Etxeak, ezbehar-deklarazioa jasotzen denetik berrogei egun bete baino lehen, zor dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du berak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera.

Aseguruak Aseguru Etxeari eskatu ahal izango dio zuzenean ordaintzeko haiek hautatutako konpontzaileari kalte-ordainaren zenbatekoa.

Aseguruaren izaerak aukera ematen duenean eta aseguruak baimena ematen duenean, Aseguru Etxeak kalte-ordaina ordaindu beharrean ezbeharrek hondatutako objektua konpondu edo ordeztu ahal izango du.

Aseguru Etxea berandutzan erortzen bada prestazioa emateko garaian, aseguruarentzat onuragarrien diren kontratu-klausulak baliozkotzat joko diren arren, ondoko arauen arabera emango da kalte eta galeren ordaina:

1. Oro har, Aseguru Etxeak Aseguru Hartzaileari edo Aseguratuari buruz izandako berandutzari eragingo dio, eta bereziki, erantzukizun zibileko aseguruan kaltetutako hirugarrenari buruz izandako berandutzari.

2. Kalte-ordaina ematean —diruz ordaintzean edo hondatutako objektua konpontzean edo ordeztean— izandako berandutzari aplikatuko zaio, baita Aseguru Etxeak zor izan dezakeen gutxieneko zenbatekoa ordaintzeko garaian izandako berandutzari ere.

3. Aseguru Etxea berandutzan erori dela ulertuko da, ezbeharrak gertatu eta hiru hilabetera prestazioa eman ez badu, edo ezbeharraren deklarazioa jaso zenetik berrogei eguneko epean zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez badu.

4. Berandutzaren kalte-ordaina ofizios ezarriko du organo judizialak, eta ordaindu beharreko zenbatekoa urteko interesa izango da, honela kalkulatuta: sortzen den garaian indarrean dagoen diruaren legezko interesa % 50ean igoa. Interes hauek egunka sortuak direla kontsideratuko da, erreklamazio judizialik egin beharrik gabe. Hala ere, ezbeharrak gertatu denetik bi urte igaro ondoren, urteko interesa ezingo da ehuneko hogeitik beherakoa izan.

5. Ezbeharrak hondatutako objektua konpondu edo ordezteari dagokionez, interes-kalkuluaren hasierako oinarria konponketa edo ordezte horren zenbateko likidua izango da, eta likideziaz ezak ez du eragotziko interesak sortzen hastea hurrengo 6. atalean adierazten den datan. Gainerako kasuetan, zor den kalte-ordaina izango da kalkuluaren hasierako oinarria, edo Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa bestela.

6. Interes horiek kontatzen hasteko hasiera-muga ezbeharraren data izango da. Hala ere, Aseguru Hartzaileak, Aseguratuak edo Onuradunak ez badute ezbeharraren berri emateko betebeharrak bete polizan ezarritako epean edo, subsidiarioki, hura ezagutu eta zazpi eguneko epean, ezbeharraren berri eman den eguna izango da kontatzen hasteko hasiera-muga. Kaltetutako hirugarrenari edo haren jaraunsleei dagokienez, zenbaki honetako lehen paragrafoan xedatutakoa salbuetsi egingo da aseguratzaileak frogatzen badu ez zuela ezbeharraren berri izan kaltetuak edo haren jaraunsleek erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkeztu arte, eta, kasu horretan, erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkezten den data izango da hasiera-muga.

7. Interesak kontatzeko amaiera-muga izango da, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu gabeko kasuetan, aurreko zenbakiaren arabera kalte-ordainaren zenbateko osoarengatik interesak sortzen hasten den eguna, salbu Aseguru Etxeak gutxieneko zenbateko hori lehenago ordaintzen badu, kasu horretan ordainketa horren eguna izango baita muga-eguna. Gainerako kasuetan, berandutza-interesak ordaintzeko Aseguru Etxeak duen betebeharraren amaiera-data izango da, aseguruari, onuradunari edo kaltetunari ordainketa, konponketa edo ordezpenaren bidez kalte-ordaina ematen dion eguna.

8. Aseguratzailaren berandutzagatik ez da kalte-ordainik eman beharko, kalte-ordaina edo gutxieneko zenbatekoa ez ordaintzeko arrazoi justifikatu bat edo aseguratzaileari egotzi ezin zaiona egon bada.

9. Aseguru Etxearen berandutzako kalte-ordaina erabakitzean ez da aplikatuko Kode Zibileko 1.108. artikuluan xedatutakoa, ez eta Prozedura Zibilaren Legeko 576. artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoa ere, azken agindu horretan epaiaren errebokatze erabateko edo partzialari buruz dauden aurreikuspenak izan ezik.

Erantzukizun zibilaren bermeak estaltzen dituen ezbeharretan, kaltetuak edo bere jaraunselek zuzeneko akzioa izango dute Aseguru Etxearen kontra, kalte-ordaina emateko betebeharra bete dezala eskatzeko, Aseguru Etxeak aseguratuaren kontra duen berreskaera-eskubideari kalterik egin gabe, hirugarrenari egindako kaltea edo galera aseguratuaren doluzko jokabidearengatik gertatu denean. Zuzeneko akzioa immunea da Aseguru Etxeak aseguratuaren kontra izan ditzakeen salbuespenekiko. Hala ere, Aseguru Etxeak kaltetuaren erru eskusiboa eta kaltetuaren kontra dituen salbuespen pertsonalak alegatuz aurka egin dezake. Zuzeneko akzioa egikaritzeari dagokionez, Aseguratuak kaltetutako hirugarrenari edo bere jaraunselei aseguru-kontratu dagoela adierazteko eta horren edukiaren berri emateko betebeharra izango du.

Subrogazioa

Aseguru Etxea, kalte-ordaina ordaindutakoan, ezbeharren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideez eta akzioez baliatu ahal izango da ezbeharren erantzukizuna duten pertsonen aurrean, betiere kalte-ordainaren mugara arte, eta eskubide hori Aseguratuaren kaltetan erabili gabe; hala ere, Istripu Pertsonalen bermeak babestutako ezbeharretan, urgentziatzko Osasun Laguntzarengatik egindako ordainketei dagokienean bakarrik baliatuko dira eskubide horiek.

Bere egintzaz edo omisioz Aseguru Etxeari subrogazio-eskubidean eragin diezazkiokeen kalteen erantzule izango da Aseguratu.

Aseguru Etxeak ez du, legearen arabera, subrogatzeko eskubiderik izango beren egintzaz eta omisioz eta aseguru-kontratu baten bitartez aseguratuaren erantzukizuna sorrarazi duten pertsonen aurka, ezta ezbeharren eragilearen aurka ere, pertsona hori Aseguratuaren ahaidea bada -zuzeneko edo zeharkako ahaidea, odolkidetasuneko hirugarren gradura arte-, guraso adoptatzailea bada edo adopziozko semea edo alaba bada. Azken kasu horretan, subrogazioa kontratu horren baldintzen arabera egongo da mugatua bere norainokoan.

Aseguru Etxea eta aseguratuak beste hirugarren erantzule baten aurrean batera gertatuko balira, lortutako berreskuratzea bien artean banatuko da bakoitzaren interesaren proportzioan.

POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

Aseguruaren oinarriak

Aseguru Hartzaileak egindako eta horretarako dagoen galde-sortan jasotako deklarazioetan oinarrituta hitzartu da poliza hau, eta deklarazio horien arabera onartu du Aseguru Etxeak arriskua, eta hala kalkulatu da dagokion prima.

Polizaren edukia eta aseguru-proposamena edo hitzartutako klausulak bat ez badatoz, aseguru-hartzaileak hilabeteko epea izango du, poliza entregatzen zaionetik kontatzen hasita, Aseguru Etxeari erreklamatzeko desberdintasun hori konpon dezan. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio.

Aseguru Hartzaileak galde-sortako deklarazioetan erreserba, zehaztugabetasuna edo egiazkotasun-falta egingo balu, berak ezagutzen dituen eta arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen zirkunstantziei buruz, ondorengo arau hauek aplikatuko dira:

Aseguru Etxeak kontratua hutsaldu ahal izango du, aseguru-hartzaileari zuzendutako deklarazio bat eginez hilabeteko epean, informazioa isildu edo oker eman dela jakiten duenetik kontatzen hasita. Aseguru Etxearentzat izango dira, bere aldetik dolu edo erru larririk ez bada behintzat, deklarazioa egiten den unean hasita dagoen aseguru-aldiari dagozkion primak.

Ezbeharra Aseguru Etxeak deklarazio hori egin baino lehenago gertatzen bada, kalte-ordaina proportzionalki murriztuko da, arriskuaren benetako tamaina ezagutuko balitz aplikatuko litzatekeen primaren eta hitzartutako primaren arteko aldearen proportzioan. Aseguru Hartzailearen aldetik dolu edo erru larririk izan bada, Aseguru Etxea libre geratuko da kalte-ordaina ematek.

EDONOLA ERE, ASEGURU-ETXEAK ASEGURU-ESKAERAREN GALDE-SORTA EGITEN EZ BADIE EDO, EGINDA ERE, ARRISKUAREN ONARPENEAN ERAGIN DEZAKETEN ETA ARRISKUAN SARTUTA EZ DAUDEN ZIRKUNSTANTZIAK BADIRA, EZ DIRA AURREKO ARAUAK APLIKATUKO.

Aseguruaren hasiera eta iraupena

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan jarriko da indarrean aseguru, aseguratzalea 15 eguneko epean lotuko zaio aseguruaren proposamenari, eta aseguru-hartzailea behartuta geratuko da baldintzetan ezarritako prima ordaintzera.

Kontratua deuseza izango da, sinatzen denerako arriskua desagertu bada edo ezbeharra gertatu bada.

Polizako Baldintza Partikularretan adierazitako denbora-epean egongo da indarrean aseguruua. Epealdika luzatzeko aukerarekin kontratatzen bada, isilbidez luzatuko da aldiko urtebeterako, alderdietako batek kontrakoa adierazi ezean, beste alderdiari idatziz jakinaraziz, gutxienez, hasita dagoen epealdia amaitu baino bi hilabete lehenago.

Kontratua desagiteko erabakia aseguru-hartzailearena baldin bada, Aseguru Etxearen alde geratuko dira hasita dagoen epealdiko primak, eta erabakia Aseguru Etxearena bada, aldiz, hutsaltze-datatik hasi eta ordaindutako primak estalitako aseguru-aldia amaitu arte geratzen den denborari dagokion prima-zatia itzuli beharko dio Aseguru Etxeak Aseguru Hartzaileari.

Alderdietakoren batek hitzartutako bermeak aldatu nahi izanez gero, estaldurak kenduz edo murriztuz, beste alderdiari jakinarazi beharko dio, gutxienez hasita dagoen epealdia bukatu baino bi hilabete lehenago. Jakinarazpena jaso duen alderdiak erantzuten ez badu epealdia bukatu baino hamabost egun lehenago, ulertuko da onartu egiten duela eta aseguruaren hurrengo epealditik aurrera izango ditu ondorioak; eta, ezetz erantzuten badu, poliza hutsaltzeko aukera egongo da esandako muga-egunetik aurrera.

Edozein arrazoi dela-eta aseguraturako arriskua desagertuz gero, poliza hutsalduta geratuko da inguruabar hori gertatzen den datan bertan, eta Aseguru Etxea aseguratuari primaren zati bat itzuli beharretik libre geratuko da.

Primen ordainketa

Aseguru Hartzaileak polizaren Baldintza Orokorren eta Partikularren arabera ordaindu beharko du prima. Aldizkako primak hitzartu badira, lehenengoa galdagarria izango da kontratua sinatzen den unetik aurrera.

Aseguru Hartzailearen erruz prima ez bada ordaindu, edo muga-egunean prima bakarra ez bada ordaindu, Aseguru Etxeak eskubidea izango du kontratua suntsitzeko edo zor zaion primaren ordainketa exekuzio-bidetik galdatzeko.

Espresuki kontrakorik hitzartu ezean, prima ez bada ordaindu ezbeharra gertatu aurretik, Aseguru Etxea bere betebeharretatik libre geratuko da.

Hurrengo primen ordainketa muga-egunean izango da galdagarria, aseguru-hartzailearen egoitzan edo polizako Baldintza Partikularretan hitzartutakoan.

Ondorengo primetakoren bat ez bada ordaintzen, estaldura etenda geratuko da, muga-egunetik hilabete pasatu ondoren. Hilabete horretan ezbeharren bat gertatuko balitz, Aseguru Etxeak kalte-ordain gisa eman beharreko zenbatekotik zor den primaren zenbatekoa kendu ahal izango du. Aseguru Etxeak ordainketa ez badu erreklamatzeko primaren muga-egunaren ondorengo sei hilabeteetan zehar, kontratua azkendutzat emango da.

Kontratua ez balego suntsituta edo azkenduta aurreko artikuluen arabera, estaldurak berriz ere ondorioak izango ditu aseguru-hartzaileak prima ordaintzen duen eguneko hogeita laugarren ordutik hasita.

Banku-helbideratzea

Aseguru Hartzaileak banketxe, aurrezki-kutxa edo finantza-erakundeari helbideratze-agindua emanez zuzendutako gutuna emango dio Aseguru Etxeari.

Prima bere muga-egunean ordaindutzat hartuko da, salbu hilabeteko graziazko epean kobratzen saiatzean ordaindu behar duenaren kontuan nahiko diru ez badago. Kasu horretan, Aseguru Etxeak aseguratuari jakinaraziko dio ordainagiria Aseguru Etxearen egoitzan duela, eta aseguratuak prima egoitza horretan ordaindu beharko du. Muga-egunetik hilabeteko epea pasatzen bada ordainketarik egin gabe, aseguruaren etenaldian geratuko da.

Aseguru Etxeak kobratzeko ordainagiria aurkeztu gabe graziazko epea pasatzen uzten badu edo aurkeztean kontuan nahiko diru ez badago, horren berri eman beharko dio prima ordaintzeko betebeharra duenari, gutun ziurtatu edo zalantzarik gabeko bide batez, hilabeteko epe berri bat emanez, Aseguru Etxeari adierazteko ordainketa nola egingo duen. Epe hori kontatzen hasiko da aipatutako gutuna edo jakinarazpena Aseguru Etxeari komunikatutako azken egoitzan jasotzen denean. Data horretatik hilabeteko epea pasatzen bada ordainketarik egin gabe, aseguruaren etenaldian geratuko da.

Zuzendaritzak edo legez baimendutako ordezkariak igorritako ordainagirik bakarrik behartuko dute Aseguru Etxea.

Aseguru Etxearen loturadun agente ordezkari bati egindako prima-ordainketak, zuzenean Aseguru Etxeari egindako ordainketaren balio bera izango du.

Arriskuaren aldaketak

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari eman beharko diote, ahal bezain laster, arriskua areagotzen duten zirkunstantzia guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan jakin izan balitu ez sinatzeko adinakoak edo bestelako baldintza zorrotzagoetan sinartzeko adinakoak baldin badira.

Aseguru Etxeak onar dezake edo ez arriskua areagotzea, eta arau hauek aplikatuko zaizkio:

Onartzen badu, Aseguru Etxeak kontratuan behar den aldaketa egitea proposatuko dio aseguru-hartzaileari, arriskua areagotu dela deklaratu zaionetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Aseguru Hartzaileak hamabost eguneko epea izango du proposamen hori onartzeko edo ukatzeko, proposamena hartzen duenetik kontaktzen hasita. Aseguru Hartzaileak ez badu onartzen edo ez badu ezer esaten, Aseguru Etxeak ahalmena izango du, epe hori bete ondoren, kontratua hutsaltzeko hartzaileari aurrez abisatuz eta beste hamabost eguneko epea emanez erantzun dezan; egun horiek pasatu eta hurrengo zortzi egunen barruan jakinaraziko dio hartzaileari behin betiko kontratu-hutsaltzea.

Aseguru Etxeak arriskuaren aldaketa ez badu onartzen, kontratua hutsaldu ahal izango du. aseguru-hartzaileari hilabeteko epean jakinarazi beharko dio, arriskua areagotzearen berri izaten duen egunetik kontaktzen hasita.

Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak deklaraziorik egin ez badu, eta ezbeharren bat gertatzen bada, Aseguru Etxea bere prestazioa ematek libre geratuko da, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak fede gaiztoz jokatu baldin badu. Bestelako kasuetan, Aseguru Etxearen prestazioa murriztu egingo da, hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko aldearen proportzioan.

Arriskua areagotzea ez bada aseguru-hartzaileari edo aseguratuari egozteko modukoa, eta Aseguru Etxeak arrisku-aldaketa ez badu onartu nahi, sortu gabeko prima-zatia itzuli egin beharko du.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari eman ahal izango diote arriskua arintzen duten zirkunstantzia guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan ezagutu izan balitu bestelako baldintza mesedegarriagoetan sinarazteko adinakoak baldin badira.

Horrela bada, hasita dagoen epealdia amaitutakoan, Aseguru Etxeak dagokion proportzioan murriztu beharko du hurrengo primaren zenbatekoa. Bestela, aseguru-hartzaileak kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du, eta arriskua murriztu dela jakinarazten duenetik ordaindu beharko zukeen primaren eta ordaindu duen primaren arteko aldea itzul diezaiotela eskatu ahal izango du.

Aseguratutako zenbatekoen errebalorizazioa

Aseguratutako zenbatekoen errebalorizazioa hitzartu den aseguru luzagarrietan, urtero egingo da errebalorizazio hori, arau hauen arabera:

Errebalorizazio-indizea ehuneko finkoa denean, ehuneko hori aurreko urtaldian zenbateko aseguratuei aplikatuz egingo da errebalorizazioa.

Aplikatu beharreko indizea, aseguru-hartzaileak aukeratuta, aldakorra bada kontsumoko prezioen indizeak izandako igoeraren arabera, errebalorizazioa egingo da urtaldi bakoitzaren muga-egunaren aurreko hilabeteari dagokion indize hori aurreko urtaldikoarekiko aldatu den proportzio berean, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako datuen arabera.

Aseguratutako zenbatekoen errebalorizazioak poliza honetan ezarritako primak eta objektu bakoitzeko aseguratutako zenbatekoen mugak egokitzea ekarriko du. Nolanahi ere, aseguru-hartzaileak edo Aseguru Etxeak aukera izango dute, gutxienez muga-eguna baino bi hilabete lehenago egindako jakinarazpen baten bidez, adierazitako errebalorizazio-sistemaren aplikazioari uko egiteko, hurrengo aseguru-epealditik aurrera.

Aseguratutako zenbatekoen errebalorizazio automatikoa hitzartu bada, Aseguru Etxeak ERREGELA PROPORZIONALA aplikatzeari uko egingo dio, baldin eta ohartarazitako infra-asegurua ez bada benetako balioen 100eko 10etik gorakoa.

Ondasun aseguratuaren transmisioa

Aseguratutako ondasunak transmititzen badira, eskuratzailerak subrogatuta geratuko da aseguru-kontratuan lehenengo titularrari zegozkion eskubide eta betebeharretan.

Aseguratuak idatziz emango dio eskuratzaileri aseguratutako ondasunentzat itundutako aseguruaren berri. Behin transmisioa egiaztatutakoan, Aseguru Etxeari edo bere ordezkariari ere idatziz jakinarazi beharko dio, hamabost eguneko epean.

Transmisioa egiten den unean mugaeguneratuta dauden primak ordaintzeko erantzukizun solidarioa izango dute eskuratzailerak eta aurreko titularrak, edo horren jaraunsleek, aurreko titularrak hil bada.

Aseguratutako ondasunen eskuratzailerak kontratua hutsal dezake, aseguruaren berri izan eta hamabost eguneko epean Aseguru Etxeari idatziz jakinarazten badio. Kasu horretan, Aseguru Etxeak hartzen du kontratua hutsaltzen denean korritzen hasita legokeen epealdiari dagokion primaren eskubidea.

Aseguru Etxeak aukera hauek izango ditu egindako transmisioaren berri izaten duen unetik aurrera:

Kontratuaren lagapena onartzea, eta dagokion aldaketa-gehigarria jaulkitzea. Kontratua hutsaltzea, transmisioaren berri izan duen egunaren hurrengo 15 egunen barruan. Erabakia eskuratzailerari idatziz jakinarazi ondoren, Aseguru Etxea hilabeteko epean geratuko da obligatuta, jakinarazpenetik kontaktzen hasita.

Aseguru Etxeak itzuli egin beharko du kontratua hutsaltzearen ondorioz arriskurik hartu ez duen aseguru-epealdiari dagokion prima-zatia.

Aurreko arauak aplikatuko dira heriotza, ordainketa-etendura, kita eta itxarote, eta aseguru-hartzailearen edo aseguratuaren kiebra edo konkurtso kasuetarako ere.

Hirugarrenen eskubideak

Hirugarrenek bereziki atxikitako ondasunei buruz duten eskubidea, ondasun hipotekatu, pignoratu edo pribilegioari lotutakoengatik aseguratuari dagozkion kalte-ordainetara hedatuko da, ezbeharra berme erreala eratu ondoren edo pribilegioa sortu ondoren gertatzen bada. Horretarako, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak eskubide hori eratu izana ezagutzera eman beharko dio Aseguru Etxeari, eskubide horren titularraren berri duenean; eta titular horren eta aseguratuaren artean auzirik izanez gero, kalte-ordainaren zenbatekoa interesdunei komeni zaien moduan jarriko da gordailutan, eta, hitzarmenik izan ezean, Kode Zibileko 1.176. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Aseguru Etxeak kalte-ordaina ordaintzen badu, hartzekodunei ezbeharraren berri eman eta hiru hilabete pasatutakoan horiek aurkeztu ez badira, betebeharetik libre geratuko da.

Kontratuaren azkentzea ezingo da alegatu hartzekodun hipotekario, pignoraziozko edo pribilegiatuaren aurka, azkentzearen arrazoi izan zen gertaera jakinarazi zitzaionetik hilabete pasatu arte.

Hartzekodun horiek ordaindu ahal izango dute aseguru-hartzaileak edo Aseguratuak ordaindu gabeko prima, haiek aurka egon arren. Horretarako, Aseguru Etxeak hartzekodunei jakinarazi beharko die Aseguratuak prima ordaindu gabe daukala.

Kalte-ordaina ezbeharrean hondatutako gauzak berreraikitzen erabili behar bada, Aseguru Etxeak ez du kalte-ordaina emango Aseguratu eta aurreko ataletan aipatutako hartzekodunak ez badira ados jartzen gauza horiek berreraikuntzan izango dituzten bermeei buruz. Adostasunik lortzen ez bada, artikuluko honetako A) atalean xedatutakoaren arabera gordailutuko da kalte-ordaina.

Kontratu honetako harreman juridikoa aseguru-hartzailearekin edo aseguratuarekin bakarrik ezartzen denez, hirugarrenek izan lezaketen eskubidea kalte-ordaina jasotzera mugatzen dela ulertuko da, hala balegokie, eta ez dute ezbeharrean tramitazioan parte hartzerik izango; eta aseguru-hartzaileak edo aseguratuak izan litzaketen eskubide-murrizte edo -galtzeek ere eragina izango dute hirugarrenengan, artikuluko honetako aurreko ataletan xedatutakoa salbuetsiz.

Aseguruen konkurrentzia

Poliza honek estalitako edozein arrisku beste aseguru-erakunde batek ere denborarepe berdinean estaltzen dituenean, aseguru-hartzaileak edo Aseguratuak Aseguru Etxeari eta gainerako aseguratzaleei eman beharko die beste aseguruen berri, kontrakorik hitzartu ezean.

Jakinarazpen hori doluz egingo ez balitz, eta, gainasegurua izanik, ezbeharra gertatuko balitz, Aseguru Etxeak ez du kalte-ordaina emateko betebeharririk izango.

Ezbeharra gertatutakoan, aseguru-hartzaileak edo Aseguratuak Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, gainerako aseguratzaleak nor diren adieraziz.

Jakinarazpenak

Aseguru Hartzaileak, aseguratuak edo onuradunak egindako jakinarazpenak Aseguru Etxeari zuzenduta badaude soilik izango dira baliozkoak; dena dela, agente bati egindakoek ere zuzenean Aseguru Etxeari egindako jakinarazpenen balio bera izango dute. Aseguru Etxeak aseguru-hartzaileari egindako jakinarazpenak baliozkoak izango dira, Aseguru Etxeak ezagutzen duen hartzailearen azken egoitzara igortzen badira; aseguru-hartzailearen jakinarazpenak, aldiz, Aseguru Etxearen egoitza sozialera edo polizaren kudeaketan parte hartu duen bulegora bidali behar dira.

Aseguru-agente lotetsiei eta aseguruetako artekariari egindako jakinarazpenek ez dute batere baliorik izango, horiek Aseguru Etxeari helarazpenik egiten ez badiote behintzat.

Artekari batek aseguru-hartzailearen izenean Aseguru Etxeari egindako jakinarazpenek aseguru-hartzaileak berak egindakoen balio bera izango dute, horrek esanbidez kontrako adierazpenik egin ezean.

Preskripzioa, jurisdikzioa eta arbitrajea

Preskripzioa

Kontratu honetatik eratortzen diren akzioek bi urteko epean preskribatuko dute Kalte Materialen eta Erantzukizun Zibilaren estalduren kasuan, akzioak egikaritzeko aukera dagoen egunetik aurrera.

Jurisdikzioa

Kontratu hau Espainiako jurisdikzioaren mende geratzen da, eta, jurisdikzio horren barruan, Aseguratuaren egoitzari dagokiona izango da kontratutik sortutako akzioez arduratzeko eskumena izango duen Epailea. Horretarako, Espainiako egoitza bat izendatu beharko du aseguratuak, bere egoitza atzerrian badu.

Arbitrajea

Alderdiak espresuki ados jarritz gero, kontratu honetatik sortutako iritzi-desberdintasunak arbitroen erabakipean jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Telefono interesgarriak

larrialdietarako telefonoa 112

Zerbitzuetarako eta ezbeharretarako: 902 38 08 38 / 944 94 74 28

AUTOMOBILA

ETXEBIZITZA

AURREZKI AURREIKUSPENA

BIZITZA ISTRIPUAK

OSASUNA

NEGOZIOA

EGUNEROKO BAJA